

Kultura

Garikoitz Mendizabal txistulariak zabalduko du, domekan, Musikaireren egitaraua Elorrión > 11



**ZALDIBARKO
JAIK 2013**

Durangotik Gasteizera oinez, autobus zerbitzu "duina" eskatzeko

Alsa enpresak kudeatzen duen Durango-Gasteiz autobus lineako erabiltzaileak Madalenatik abiatuko dira gaur, 15:00etan, "diru publikoz finantzaturako autobus zerbitzu duina eskatzeko" > 5



Mendiguren y Zarrua enpresa likidazio prozesuan sartu da > 9

Joanzenmartitzenean lanitunasinatzea eskatzeko deitutako greban zeudela jakin zuten Mendiguren y Zarrua enpresaren beharginen zuzendaritzak likidazioa eskatu zuela. Abadiñoko eta Berrizko lantegietan 256 beharginek dihardute. Administradore konkurtsalaren sindikatuei esan dienez, enpresaren egoera ezohikoa da likidazio fasean egoteko, bezeroak eta lana badituzte-eta. Orain, enpresak eroslea topatzea dela bidea azaldu dute sindikatu eta-ko ordezkariak.





**IURRETA
INSTITUTUA**

Tel.: 94 466 88 00
www.iurreta-institutua.net

**MATRIKULA EPEA
uztailaren
8tik 12ra**

HEREZI DU
GUREKH BIDIATZEA

Durango > 8

Gasa ateratzeko gune posible bat izan daiteke Durangaldea

Garai > 2

Ahotsak proiektuan sei herritar elkarriketatu dituzte

Durangaldea > 3

Gerediaga-Elorrio errepidearen eraikuntzaz kexu da EH Bildu

Abadiño > 6

Udalak Incoc enpresari esleitu dizkio haur eskolako lanak

Herririk herri

> GARAI

Herriko berbak eta ohiturak, herritarren ahotik jasota

Ahotsak proiektuan sei herritar elkarrizketatu dituzte; Justina Urizar eta Maku Negugogor dira bi

> MARKEL ONAINDIA

Justina Urizarren etxean batu dira Garaiko Ahotsak proiektuan parte hartu duten lau lagun, egindakoa erreparatzeko. Urizar bera, Maku Negugor eta Uxune Martinez garaitarrak, eta Andere Gonzalez algortarra. Euskal Herriko ahozko ondarea, ohiturak eta istorioak jasotzen dituzte Ahotsak-ekoek, gal ez daitezten. Gonzalez lan horretan ibili da Garain, eta Martinezen laguntza eduki du. Sei elkarrizketa grabatu dituzte, eta Urizar eta Negugogor dira protagonistetako bi.

Badute zer kontatua Urizarrek eta Negugogorrek. 1917an jaio zen Urizar. “Gogorra izan

zen gure bizimodua. Orain baino konformismo handiagoa zegoen”. Lehengo ohituretan murgildu dira hizlariak. San Joan pasa berri dela-eta, orain ia surik ez dela egiten dio 1945ean jaiotako Negugogorrek, eta lehengoak dakartza akordura: “Jantokia egin duten lekuan, etxeetako traste zahar guztiak ekarri eta hor egiten zen sua”. Urizarrek jarraitu du: “Bezperan batanak, azeri-buztanak eta beste belar batzuk batzen genituen. Sabaian baztarto batean gorde, eta hurrengo San Joan egunean, solo bakoitzean eskubete. Sua isiotu eta kantatu”. Abesteari ekin dio Urizarrek, berba bakar bat ahaztu barik: “San Juan, San Juan...”.



Ezkerretik eskumara, Urizar, Negugogor, Gonzalez eta Martinez.

Ohiturak, egunerokoan ere bazituzten. “Katarroak-eta osatzeko, lehen enplastua zen dena”, gogoratu du Urizarrek. Negugogorrek, gai beretik: “Sugeak haginka egin zion bati errosariotara zetorrela. Gurera etorri, eta amak atoan errebotika egin, ipini, eta normal joan zen errosariora. Kapeleneoak erakutsi zion amari”. Gonzalez sartu da

solasaldian: “Horrek kontuok ez dira liburuetan agertzen”.

Orain, transkribatzera

Herriaz gehiago jakiteko balio izan dio Martinezi lanak: “Egunerokoan ez da halako gauzetaz berba egiten; memoria kolektiborako jaso gura genituen”. Auzoka, gauza desberdinak topatu dituzte. “Berba bat, hemendik

eta Momoitiora aldatu egiten da”, esan du Gonzalezek.

Felix Arestik, Mari Jakak, Matias Larrinagak eta Krispin Arregik ere parte hartu dute egitasmoan. Euren esandakoa transkribatzea izango da hurrengo pausoa, argitaratu ahal izateko. Behar horretarako, udalari laguntza eskatu diote Ahotsak proiektukoek.

> IURRETA

Anbulantzia medikalizatu baten beharra berretsi dute

PSE-EEk aurkeztutako mozioaren alde egin dute PPK eta Bilduk ere; EAJ, berriz, abstenitu egin da

> AITZIBER BASAURI

Barrualdeko Eskualderako ambulancia medikalizatu bat lortzeko lanean jarrai dezala eskatuko dio Iurretak ere Jaur-laritzari, aurretik Durangon, Elorrioren eta Berrizen egin lez. Gernikan dagoen ambulancia-gaz Durangalderako zerbitzua eskas geratzen dela diote. Bestalde, larrialdietan jarduteko beste erizain bat ere eskatuko dute. Mediku fakultatiboen euren eskariak direla nabarmendu du PSE-EEk mozioa aurkeztean.

PPren eta Bilduren babesa izan dute. EAJ abstenitu egin da.

Falta bada, beste ambulancia bat ez legokeela txarto dio PPK, “ardura politikoa” arrazoituz. Bilduk “premia” badagoela adierazi du, eta eskari “zenezuduna” dela: “Ez da gai politikoa, baina bai politikoki babestu daitekeena”. EAJk formak kritikatu ditu, edukiagaz ados egon arren. “Hala ere, gure erantzukizunetik ahalegin guztia egingo dugu izan baden premia horri erantzuteko”.

Donien-atxa igo, eta mozorrotuta hasiko dituzte jaiak Amatan

> A.B.

Ohitura den legez, donien-atxa igoaz hasiko dituzte jaiak, bihar, Amatan. Horretarako hitzordua 19:00etan jarri dute. Auzoko dantzarien azken entsegua, berriz, 19:30ean hasiko dute. Domekan eskainiko dute auzoko dan-

tzariak euren saioa, 12:00etan; gero, lancha egongo da.

Tortilla txapelketa ere antolatuko du Jai Batzordeak biharko. Parte-hartzaileek mozorrotuta aurkeztu beharko dute tortilla 20:30erako, eta, gero afaltzeko aprobetxatuko dute. Bertsolariak eta erromeriak alaituko dute afalostea.

Domekan, trikitilarien kalejiragaz hasiko da eguna, 11:00etan. Meza ere egongo da. Herri bazkaria, karta lehiaketa eta umeentzako jolasak ere eratu dituzte.

> ELORRIO

28 urteko kartzelaldia beteko du Felix Zabartek

Zabarte atxilotu zutenetik 28 urte beteko dira martitzenean; protesta deitu du Herrirak

> M.O.

Martitzenean, 28 urte beteko dira Felix Zabarte elorriarra atxilotu zutenetik, ETAko kide izatea egotzita. Geroztik preso egon da, eta Herrira mugimenduak adierazi du, legediaren arabera 2008tik libre egon beharko lukeela. 197/2006 doktrina, *Parot doktrina* legez ezagutzen dena ezarri, eta zigorra luzatu zioten. Anton Lopez elorriarrak ere neurri bera jaso du. Zabarteren atxiloketaren efemeridea kontuan har-

tuta, protesta ekimena deitu du Herrirak martitzenerako; 19:30ean izango da, plazan.

Doktrina etetea

Estrasburgoko epaitegia doktrinaren kontra agertu zen, baina Espainiaren errekursoaren ostean berriro aztertuko dute. Herrirak esan du doktrina etetea beharrezkoa dela Euskal Herrian bizi den sasoi berriari lotuta, baita sakabana-keta amaitzea eta gaixorik dauden presoak etxeratzea ere.

Eroskiren eta Fagorren kaltetuen protesta, bihar

> M.O.

Eroski eta Fagor enpresek batzar nagusia egingo dute bihar, 10:00etan, Elorrioko Arriolan. Enpresa bien diru ekarpenekin kaltetuak izan direnek protesta egingo dute parean, iragarri dutenez. MCCk apor-

tazioak bankuen bidez saldu zizkien, baina ez zekiten diru hori enpresak likidatu arte atara ezingo zutenik. Elkartean batu dira kaltetuak, eta dirua berreskuratzeko ahaleginetan dabilta. Durangaldean ehun kaltetu baino gehiago daudela uste dute.

Jende asko etorriko ei da protestara, Lourdes Okaranza kaltetuak azaldu duenez: “Gu, kaltetuok, bertan egongo gara euren aurrean, gure protesta eta ezinegona ikusi ditzaten”.

Berriotxo santu izendatu zutela 25 urte bete dira

Balendin Berriotxo elorriarra duela 25 urte izendatu zuten santu eta, horregatik, berezia izango da aurtengo Berriotxo Eguna. Uztailaren 4a jaiegun handia izan ohi da herrian. Eguenean, hiru meza egingo dituzte. Gainera, 18:00etan pilota partiduak egongo dira, 19:00etan Kriskitinen dantzak, eta 20:00etan abesbatzen emanaldiak.

30 lagun batu ziren EH Bilduk deitutako auzolanean

EH Bilduk auzolana deitu zuen joan zen zapatarako, eta 30 lagun batu ziren. Angion, “Amazoniako oihana ematen zuena aisialdirako zelai polit” bihurtu zutela esan dute. Gainera, Zumelegi errekatik zabor ugari ateratu zuten. “Honak guztiak argi eta garbi uzten du bide honi jarraitu eta auzolan egun gehiago antolatuko behar direla”, esan dute.

> MALLABIA**Plan Orokorra aurkeztuko du udalak uztailaren 4an eta 9an****> JONE GUENETXEA**

Mallabiko Udalak Plan Orokorra jendaurrean aurkezteko hitzorduak jarri ditu. Uztailaren 4an eta 9an, aurkezpena egingo dute kultur etxean, 18:00etan. Batzar horretan dokumentuaren nondik norakoak azalduko dituzte

Aholkulari Batzordeak alegazioak aztertu ondoren egin beharreko aldaketak egiteko aukera du

teknikarien laguntzagaz. Informazio gehiago jaso gura duenak, dokumentua ikusgai izango du udaletxean eta kultur etxean. Ondoren, alegazio epea zabalduko dute irailaren 6ra arte. Udaleko ordezkariak jakitera eman dutenez, Aholkulari Batzordeak alegazioak aztertu ondoren egin beharreko aldaketak egiteko aukera izango du. Udalbatzak behin-behineko onarpenera egiteko udalbatzarretik pasako da plan proposamena. Prozesuarekin jarraitzeko, Plan Orokorra Bizkaiko Foru Aldundira bidaliko dute, azken erabakia hartu dezan.

Longaburu menditik pagogurra hartzeko aukera**> J.G.**

Herritarrei Longaburu menditik erabilera propiorako pagogurra hartzeko aukera eman die aurren, berriz ere, Mallabiko Udalak. Egurra eskuratzeko lan guztiak (moztea, garraiatzea, jasotzea eta abar) interesdunaren kontura izango direla azaldu du udalak. Egur hori jaso gura duten mallabitarrek uztailaren 12ra arte dute izena emateko aukera.

> DURANGALDEA**Mendiguren y Zarraua erosle bila dabil likidazioan sartu eta gero**

Abadiño eta Berrizko lantoki bietan 256 beharginek dihardute



Mendiguren y Zarrauko langileak greban egon dira asteon.

> JONE GUENETXEA

Ahozabalik. Horrela daude Mendiguren y Zarraua enpresak Abadiño eta Berrizen dituen lantegietako beharginak joan zen asteko gertaeren aurrean. Astelehenean, grebari ekin zioten hitzarmena sinatzea eskatuz, eta martitzenean enpresak jakinarazi zuten epaitegiaren likidazioarako tramiteak hasi zituela. Administradore konkurtsalagaz bildu eta gero, sindikatuak bat datoz: "Mendiguren y Zarraua enpresak erosle bat behar du". Horrela bada, 256 langileren lanpostuak arriskuan daude. Be-

rrizko lantegian 109 beharginek dihardute, eta Abadiñoan 147 langilek.

Luis Torres ELA sindikatu-ko ordezkariaren berbetan, "ez dugu ezer ulertzen. Enpresak bezero onen eskaerak ditu, bai eta proiektu berriak ere". Beharginek diotenez, aste eta erdian egiten diren tramiteak bi egunean egin dira euren kasuan. Egoera horren aurrean, zapatuan greba bertan behera uztea erabaki zuten.

LABeko Marieli Urriolabeitiak esan duenez, enpresak likidazioa "errebantxa" moduan

hartu du: "Zuzendaritza ez da gai izan langileen eskaerei erantzuteko. Zuzendaritzak egin duena txarra da enpresarako, bai eta langileentzako ere".

Tximi Lopez UGTko ordezkariak azaldu duenez, enpresak zor handia dauka: "2010ean konkurtso egoeran egon zen enpresa, eta hitzarmena sinatu zuen hornitzaileekin. Heldu da diru hori ordaintzen hasteko momentua".

Zuzendaritzak egindako "gestio txarrak" enpresa egoera honetara eramanez, azaldu du Roberto Martin UGTko ardura-
duak.

Elorrioko berbalagunak garaile bolo txapelketan

Berrizko bolatokian elkartu dira berbalagunak



Berbalaguneko partaideak, bolo jokoa.

> M.O.

Euskaldun berriak eta zaharrak batzen dituen Berbalagun egitasmoak euskara praktikatze guneak sortzea du helburu. Ikasturte osoan hainbat foro sortzen dituzte, euskararen erabilera indartzeko asmotan. Eta, urtero antolatzen duten ekintzetako bat da bolo txapelketa. Durangaldeko berbalagunak batu, eta arratsaldepea egiten dute. Berrizko bolatokian elkartu dira aurren ere, eta bost lagunegaz osatutako zazpi taldek parte hartu dute bertan. Elorriarrak izan dira garaile.

Baina, lehiaz gainera, estiolera ere saritu zuten. Zaldibarko

Abadiño-Elorrio errepidearen eraikuntzaz kexuda EH Bildu**> J.G.**


EH Bildu koalizioak prentsa ohar bidez jakitera eman duenez, Gerediaga-Elorrio errepidea eraikitzen ari den enpresa hitzartutakoa urratzen ari da lanen exekuzioari eta ingurumen kontrolari dagokienez. Koalizioak ohartarazi duenez, "inguruan eragindako kalteez gainera, hitzarmena ez bete-
teak irabazi gehigarriak ekar ditzake enpresa eraikitzailearentzako".

Aitor Torre batzarkidearen berbetan, besteak beste, "ez dira zarata neurketen txostenak entregatu, ezta airearen eta uraren neurketenak ere. Errepide inguruetan zuhaitzak mozten hasi ziren, alde aurretik faunaren gaineko azterketa egitea beharrezkoa bada ere". Neurri horiek aurrekontuan txertatuta daudela gogorarazi du. EH Bilduk azalpenak eskatu dizkio Itziar Garamendi garraio diputatuari Batzar Nagusietan, eta elkarte emakidunari ere, dokumentazio osoa eskatuko diote. "Lanen aurrekontuak izan duen gorakadarekin kezkatuta gaude". 225 milioi eurotik 318 milioi eurora igo dela diote.

taldekide Rosik eskuratu zuen izendapen hori. Sukaldaritzaren inguruko liburu bat eta *Bertsolari* dokumentalaren DVDa eman zizkioten operari.

Txapelketaren ostean, pin-txo jana egin zuten Ganekotxe tabernan. Giro ona izan zutela esan dute antolatzaileek: "Arratsaldea giro ederrean igarotzeko aukera polita izan genuen ekitaldi honetan".

Ikasturte osoan hainbat foro sortzen dituzte, euskararen erabilera indartzeko asmotan



PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

Erdi maila


- Beroa sortzeko instalazioak (iturgintza, eguzki instalazioak, gasa)
- Mantentze lan elektromekanikoa
- SARBIDE PROBA Goi mailarako


Goi maila

- Administrazioa eta finantzak
- Telekomunikazioak eta informatika sistemak
- Automatizazioa eta robotika industrialak
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea

Arratsaldez:

- Energia eraginkortasuna eta eguzki energia termikoa
- Web aplikazioen garapena
- Fabrikazio mekanikoko diseinua





lea artibai
Ikastetxea
Elorkizuna erakiz

Xemein Etorbidea 19, Markina-Xemein (48270)
94 616 9002 • info@learfik.com • www.learfik.com



Harrison

HOTEL - RESTAURANTE

Izan ezazu eztegu eksklusiboa gure Pergolan!



Harrison Etxean etapa berri bati ekin diogu Puntuan Konsulting turismo-enpresaren eta haren zuzendari Jaime Pagairen agindupean. Bai enpresak bai zuzendariak eskarmentu handia dute sektorean, San Roque Komentu Hotelaren ardura ere baitute.

Harrison Etxea leku ezin hobean dago, Zornotzaren bihotz-bihotzean, eta lorategiz inguratuta. Estilo ingelesean apaindutako 12 logela ditu, baita hainbat areto ere, besteak beste, beirate handiko Pergola. Bertan, 200 lagunentzako lekua dago, "Chill out" eremu eta guzti, eta aproposa da mota guztietako ekitaldiak antolatzeko: ezteguak, bataioak, jaunartzeak, biltzarrak... Edo besterik ez bada, mokadutxo bat jateko eta tragoren bat hartzeko.

San Pedro, 12

48340 - Amorebieta - Bizkaia - Tfno.: 946 300 530

www.hotelharrison.com

hotelharrison@hotelharrison.com

*Harrison hotelaren eskutik bi pertsonentzako
afaria eta gaua zozkatuko ditugu*

**Zelan deitzen da Cofidis taldeagaz Frantziako Tourrean
lehiatuko den atxondarra?**

ERANTZUNA: zozketa@anboto.org-ra edo Anboto Astekaria - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta
Aurreko zozketako irabazlea: IZARO BARRUTIETA. Zorionak!

> DURANGALDEA

Durangotik Gasteizera oinez, autobus zerbitzu "duina" eskatzeko

Durango-Gasteiz autobus lineako erabiltzaileak Madalenatik abiatu dira gaur, 15:00etan

> JOSEBA DERTEANO

Durango-Gasteiz autobus linearen kontzesioa Arabako Aldundiaren esku dago, eta hark kontzesio hori Alsa enpresari emana izan dio 50 urterako. Orain, kontzesioaren epea amaitzear dago. Horiek horrela, linea horretako erabiltzaileak, batez ere otxandiarak, abagune hau aprobetxatzen ari dira linea horren inguruan dituzten kekek plazaratzeko, eta Bizkaiko zein Arabako aldundiei "diru publiko finantzatutako autobus zerbitzu duina" eskatzeko, Jone Gonzalez de Audikana erabiltzailearen esanetan.

Astelehenean Bizkaiko Foru Aldundiak Bilbon duen egoitzaren parean kontzentratu ziren, eta eskakizunak jasotzen dituen idatzia ere entregatu zuten.

Eskakizun horiek besapean hartuta, Arabako Aldundira ere joango dira. Autobus linearen ibilbide bera oinez egingo dute barikuan eta zapatuan. Barikuan, 15:00etan ipini dute hitzordua Durangoko Madalenan, Durangotik Gasteizera autobusa irteten den ordu berean. 16:00etan Izurtatik igaroko dira eta 19:00 inguruan Urkiolatik. Otxandioraino helduko dira lehen egu-



nean. Zapatuan, 08:30ean, Gasteizera abiatuko dira.

Eskakizun nagusia linea hori diru publiko finantzatzea da; hau da, linea hori nahieran kudeatuko lukeen enpresa pribatu baten esku ez uztea. Horrez gainera, erabiltzaileek beste eskakizun nagusi bi dituzte: ordu autobus bat bermatzea, bai joateko, bai bueltatzeko; eta zerbitzua, oro har, hobetzea: autobusen kalitatea, beteta doalako zutunik joan behar ez izatea, etab.



Goian, Bilboko kontzentrazioa; behean, Alsa autobusa Durangotik irten orduko.

> BERRIZ

Hainbat kulturaz busti dira berriztarrak, asteburuan

Kultura topaketetan giro ederra sortu zen domekan

> AMAIA UGALDE

Euriak tarteka jaiari agertu gura izan bazuen ere, domekan giroa sortu zen Learreta Markina eskolan. Berrizen bizi diren hainbat kulturetako janariak eta musikaz gozatzeko aukera egon zen, VIII. Kulturarteko Topaketetan.

Senegalgo arroza, Saharako kuskusa, Txileko *dulce de leche*,

Errumaniako albondigak, Euskal Herriko gatzatua... Guztira, zazpi kulturarteko berriztarrek parte hartu dute.

Henna eta trentza tailerrez gainera, perkusioan jardun zuten senegaldarrek lehenengo, eta batukada tailerrekoek gero. Ireminiako dantzariak ere parte hartu zuten, jaiaren hasieran.



Domeka eguerdi partean batu ziren kultur topaketetarako.

Bertso eskolak pregoi txikia, txirrindulariek pregoi handia

> A.U.

Bertan daude San Pedro eta Santa Isabel jaiak. Gaur, 17:00etan egingo dute jairako lehenengo deia. Bertso eskolako ikasleek aurten lehenengo egingo den pregoi txikia irakurriko dute. Ordu bi geroago, Berriz Bizikletari Elkarteak irakurriko du pregoi ofiziala.

Gaur, motorrak berotzen hasteko eguna izango da. Horretan lagunduko dute Drindotsek plazan eta herriko musika taldeek txosnagunean.

Bihar egun osoko jaiari egingo dute Koadrilen Egunean. Gazteak mozarrotuta irtengo dira, eta ordu bietan dute paella lehiaketarako hitzordua. Gauean, Toundra eta Willis Drummond taldeen kontzertuak izango dituzte txosnagunean.

> OTXANDIO

Euskara ikasten duenari matrikula ordaintzen lagunduko dio udalak

Laguntza, matrikula kostuaren %50era artekoa da; uztailearen 5era arte egin daitezke eskaerak

> J.D.

Otxandion bertan zein handik kanpora (barnetegietan, ohiko ikastaroetan...), euskara ikasten duten herritarrek dirulaguntza eskatu dezakete udaletxean. Laguntza, gehienez, matrikula kostuaren %50erainokoa izango da, eta uztailearen 5ean amaitzen da eskaerak egiteko epea. Dirulaguntzak eskatu ahal izateko,

Laguntza hartu ahal izateko baldintzen artean, asistentzia gutxienez %80koa izatea dago

lau baldintza bete behar dira: Otxandion erroldatuta egotea, eskoletarako asistentzia gutxienez %80koa izatea, matrikula ordainduta izatea, eta zerga betebeharrak egunean izatea. Eskaera orria udalaren webgunean dago eskuragarri.

Ludoteka esleipenean

Bestalde, ludoteka zerbitzua kudeaketa lehiaketa publikora ateratu du udalak. Esleipena bederatzi hilabetekoa izango da (2013ko urritik 2014ko uztaileira), eta kontratua beste ikasturte batez luzatu daiteke alde biak ados badaude. Eskaintzak udaletxean aurkeztu behar dira hamabost egun naturalen barruan.

MATERIAL DE CONSTRUCCION MACOBER

ERAIKUNTZARAKO MATERIALA BERRIZ, S.L.

BILTEGIA ETA ERAKUSTOKIA
Eitua Industriagunea, 66
Tel./Faxa: 94 682 78 90
48240 Berriz (Bizkaia)
macober@movistar.es

Zeramika eta gresen salmenta • Zementuak - isolamenduak
- pladurra... • Eskaintzak lehen mailako zeramiketara •
2. mailako baldosak trastelekuetarako.

Den-dena MACOBERren, Berrizen!

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITZAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 94 622 57 74 / 658 75 72 79 - BERRIZ

> ABADIÑO

Auzoaren eraberritzeari loturiko lehentasunak markatu dituzte

Zelaieta auzoaren eraberritzeari loturiko iritzia zehaztu dute auzotarrek



Txanpota plazan egin zuten, zapatuan, herritarren parte-hartze prozesuaren azkenengo tailerra.

> ITSASO ESTEBAN

Joan zen zapatuan egin zuten Zelaieta auzoaren eraberritzearen inguruan herritarrek duten iritzia jasotzeko parte-hartze prozesuaren azkenengo tailerra. Udaberriari abiatutako saioetan herritarrek agertutako ideia eta proposamenen artean, adostasun handiena lortu duten 20ak aukeratu zituzten zapatuko tai-

lerrean. Hain zuzen, gune hori eraberritzea markatu dute herritarrek lehentasun moduan: Txanpota plazaren izaera berrereskuratzea eta eraberritzea. Zeletabe kalea eta Tornosolo ingurua eraberritzea, edo San Trokaz eta Ferialeku plazak konpontzea ere aipatu dituzte eginbehar garrantzitsuenen zerrendan. “Auzo bizi eta atsegi-

nagoaren alde, eta interes orokorrari begiratuta”, egin dituzte auzotarrek proposamenok, eta hurrengo faseetan ere helburu horregaz ekarpenak egiten jarraitu gura dutela adierazi dute.

Herritarren ekarpenok txosten batean jasoko ditu parte-hartze prozesua bideratzen jardun duen Urak Bide taldeak orain, eta udalari helaraziko dizkio.

Umeen proposamenak jaso dituzte udaleko ordezkariak

Joan zen barikuan, Txanpota kultur etxea bete zuten Zelaieta auzoaren berrantolakatarako parte-hartze prozesuan ibili diren eskolaumeek. “Euren proposamenak aintzat hartzeko”

eskatu zieten ekitaldi horretan udaleko ordezkari politikoei.

Urak Bide tokiko arkitektura eta ingeniari taldeko teknikarien gidaritzagaz astebetzez egindako tailerretan, Zelaieta

auzoaren hirigintza hobetzeko 300dik gora ekarpen egin dituzte umeek, eta alkateari hiru CDtan helarazi dizkiote. Eskolako jolas tokian aterpe bat eraikitzeko, esaterako. “Irailtik aurrera, gauzatuta ikusiko duzue jolas tokiko aterpea”, esan zien Jose Luis Navarro alkateak. Eskariok ere aintzat hartuko dituztela berba eman zuen alkateak.

Haur eskolako lanak Incoc enpresari esleitu dizkiote, aho batez

Udaleko hiru alderdien iritziz, “lehentasunezko obra da” Zelaietako eskolan egingo duten hau

> I.E.

Udaleko hiru alderdien adostasunagaz onartu zuten, martitzeneko osoko bilkuran, Incoc izeneko enpresari esleitzea haur eskola berria eraikitzeko lanak. Udalaren aurtengo aurrekontuko inbertsiorik garrantzitsuena da berau: 986.000 euroko aurrekontua dauka. Udaleko hiru alderdien iritziz, “lehentasunezko obra da” Zelaieta eskolan egingo dutena.

Jose Luis Navarro alkateak azaldu duenez, enpresa horrek egin du eskaintzarik merkeena: “askoz merkeagoa”, azpimarratu duenez. Lanak enpresa horri esleitzeko arrazoi nagusia ekonomikoa izan da, beraz.

Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak joan zen barikutik dihardu Zelaieta eskolan jantokia eta gimnasioa handitzeko lanetan. Alkateak udalbatzarrean azaldu duenez, udalak oraindik ez

daki noiz ekin ahal izango dien asteon esleitutako lanei: alkatearen berbetan, Hezkuntza Sailak ez du obra biak elkarrekin burutzerik nahi, eta datozen egunetan zehaztuko dituzte lan bakoitzaren epeak.

Laguntza progresiboagoak

Joan zen martitzeneko udalbatzarrean, aho batez onartu zuten, baita, haur eskolako erabiltzaileentzako dirulaguntzen ordenantza berria. Dirulaguntza hori era progresiboan — eskatzailearen errentaren arabera — zehaztuko dute hemendik aurrera. Alkateak azpimarratu duenez, “justizia, edo behintzat ekitatea bilatzen dugu aldaketa honekin”. Euren egoera ekonomiko eta soziala edozein izanda ere, laguntza bera jaso zezaketen herritar guztiek lehen; orain, beharrez handiena dutenak babestuko ditu udalak.

Erromeria giroa nagusi, bihar eguerditik aurrera, Astolan

> I.E.

De Norte A Sur taldeak antolatu du, bihar, Astola auzoan egingo duten erromeria. 12:20an irakurriko dute jaien hasierako pregoia eta botako dute txupina, eta egun osorako egitaraua abiatuko dute.

De Norte A Sur herriko taldeko abesbatzaren Rocioko mezak zabalduko du egitaraua, eta bazkalordu aurretik, quad ibilaldiak izango dira, besteak beste, Astolako ermitaren inguruetan. Ondoren, 15:00etan batuko dira lagun arteko bazkarian, eta kafe dastaketa egingo dute, bazkalostean.

Arratsaldean, umeentzako puzgarriak, Romero eta Romera hautaketa, dantza emanaldia, bits festa, eta disko festa izango dira, besteak beste.

> ATXONDO**> J.D.**

Gaur hasi eta domekara bitartean jai giroa nagusituko da Apatako kaleetan. Donien-atxa jaso ostean, Marixurrieko gazteek aldarrikapena eta jaiia uztartzen dituen pregoia irakurriko dute gaur, 19:00etan. Segidan, flashmob bat eskainiko dute plazan, Mandoilek taldearen *Urrutitik kantu* abestia oinarri hartuta. Eguazten arratsaldean egin zuten azken entsegu orokorra, eta 40 bat lagun batu ziren plazan. Gura duena egunean bertan ere batu daiteke dantzara.

Zapatuan, musika izango da protagonistetako bat. 19:30ean Luhartzek erromeria eskainiko du plazan; Gaztetxean, 22:30ean, Zakarrak, Iskanbila eta Turbonegro taldeen bertsioak joko dituzte, eta ondoren, Sermond's taldeak zuzenekoa eskainiko du.

Entsegu guztiak eginda, dena prest jaiei ekiteko

Marixurrikeren pregoiagaz hasiko dituzte jaiak



Eguazten arratsaldean egin zuten flashmobeko partaideek azken entsegua.

> ZALDIBAR

San Pedro jaiak, gaurtik domekara, Eitzagan

Gaurko, biharko eta etzirako egitaraua eratu dute Eitzaga auzoan, San Pedro jaietarako

> I.E.

Adin eta gustu guztietarako egitaraua antolatu dute Eitzaga auzoan, asteburu honetan San Pedro jaiak ospatzeko. Gaur, 18:00etan abiatuko dute hiru eguneko egitaraua: umeentzako pintura eta idazketa lehiaketa egingo dute, jaiei hasiera emateko. Ondoren, 19:00etan, txokolate janagaz indarra hartu ostean altxatuko dute auzotarrek donien-atxa, eta auzoko jubilatuentzako afariagaz itxiko dute, gaurkoz, jai egitaraua.

Auzoko baselizan, 12:00etan egingo dute meza nagusia bihar, eta askotariko ekimenak izango dira ondoren egun guztian. Besteak beste, paella eta tortilla lehiaketak, auzo bazkaria, bolo txapelketa, saiheski jana edota auzotarren afaria izango dira aukeran.

Domekan, 20:30ean emango dituzte jaiak amaitutzat, baina horren aurretik beste hainbat ekitaldi izango dira Eitzagan: Ermuko Txindurri taldearen dantza emanaldia, eta giza probak, esaterako.

ERROTARITXUENA

DURANGO

Imajinatzen duzu?

Etxebizitza hau zurea izan daiteke

Arriskurik gabe
eta baldintzarik onenetan



SabadellGuipuzcoano



Bisita ezazu gure
etxebizitza pilotua

Finantzaketa %100era arte
Baldintzarik onenetan
eta idatziz bermatuta

2 log. 204.000€-tik aurrera + BEZ
3 log. 268.000€-tik aurrera + BEZ

Etorri BIDEOA IKUSTERA gure webgunera



www.sukia.com
www.solvía.es

sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

946 46 20 41

> DURANGALDEA ASTEON**Tabiran asteburu betea izango dute San Pedro jaietan**

Gaur herri bazkariagaz hasiko dituzte Tabirako Sanpedroak. Iluntzean, tortilla jana eta erromeria edukiko dituzte. Bihar, marmitako txapelketa eta herri lasterketa egingo dituzte goizean. Domekan ere egongo da jai giroa: Sapubike Martxa eta ardi txakurren erakusketa izango dira, besteak beste.

Elorrion, txosnagunerako logo eta lelo bila

Aurtengo Ferixa Nagusietan txosnen irudia egiteko, logotipo eta lelo lehiaketa antolatu du Elorrioko txosnaguneak. Uztailaren 1a ipini dute ekarpenak egiteko epemuga, eta ideia eta lanak elorrixokotxosnak@gmail.com helbidera bidaltzeko deia egin dute. Lehen aldiz antolatu dute halako lehiaketa bat.

Maliarren elkarteak integrazio jaia eratu du biharko, lurretan

Euskal Herrian bizi diren maliarren elkarteak, Fasoden-ek, integrazio jaia egingo du bihar Iurretako plazan. Arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara bitartean, Maliko tradiziozko dantzak, jakiak eta edariak eskainiko dituzte, besteak beste. Euren kulturako elementu horiek ezagutzeko gonbita egin diete herritar guztiei.

Haurreskolarako laguntzen kopurua %20 igo dela jakinarazi du PSE-EEK

PSE-EEK oharra bidali du Haurreskolarako emandako dirulaguntzen kopurua %20 igo dela azaltzeko. Iaz 76 eskaera egin zituzten gurasoek, eta 31 onartu ziren, %40. Aurten 61 aurkeztu dira, eta 36 onartu, %60.

Laguntza horietarako partida, 18.000 eurotik 28.000ra igo da aurten, eta PSE-EEK esan du berari eskerrak gertatu dela hori. Gainera, urte bikoak ere sartu zituzten partida horretan.

> DURANGO**“Ikerketa sismikoak egiten dabilta zonalde honetan”**

Gasa ateratzeko gune posiblea da Durangaldea; fracking metodoaren beldur dira ekologistak

> MARKEL ONAINDIA

Haustura hidrauliko edo frackingaren inguruko eztabaida handitzen dabil. Gasa lurretik ateratzeko praktika bat da, eta ekologistek diote ingurumenerako kaltegarria dela. Jaurlaritzak ez dio debekurik ipini. Diego Ortuzar (Bilbo, 34 urte) Bizkaiko Fracking Ez plataformako kideak berbaldea eman zuen martitzenean. Informazio falta kritikatu du.

Zer lortu gura da frackingagaz? Gas naturala; lurrean, sakontasun handiko geruza batean dago. Zulaketa bertikala egiten dute

geruzaraino, eta han, horizontalean zulatzen dute. Ura presio handian sartzen dute hainbat gai kimikogaz, harria apurtu eta gasa ateratzeko.

Ingurumenean eta osasunean eragina izango du?

Akuiferoak kutsatzen badituzte, eta horiek biztanleentzako badiara, eragingo dute. Gai kimikoek kutsadura dakarte airez ere, eta ikerketen arabera, osasunerako kaltegarriak dira, eragin kantzerigenoa daukate, esaterako.

Beste herrialde batzuetan debekatuta dago frackinga.



Diego Ortuzar, marritzenean, Pinon Etxean emandako berbaldian.

Frantzian debekatuta dago, eta Ingalaterran atzeratu egin dute, lurrikaren ondorioz. Gainera, uste baino gas kantitate txikiagoak atera izan dira. Bestalde, zergadunengandik datoz hasierako diruak. Arabako putzu bakoitza 25 milioi euro kostako dela kalkulatu da. Etekinak enpresa pribatuek eroango lituzkete.

Durangaldea ere bada ustiatzeko gune posiblea.

Ikerketa sismikoak egiten dabilta zonalde honetan. Durango, Saia izeneko baimen eremuan dago, eta esan dute gasa ohiko moduan aterako dela. Baina, gero oso erraza izango da modua aldatu eta frackingaren bidez egitea. Lehenik gasik badagoen

aztertuko dute, eta gero, zelan atera. Prozesuaren hasierako fasean gaude, baina era industrialean aurrera egiten bada, putzuen kopurua itzela izango da. Araban, hasierako putzu bi horien ostean 2.000tik gora egingo direla aurreikusitako dute. Hori zabaltzen bada, lurra gryere gazta bihurtuko dute.

> MAÑARIA**Donostiara eta Zarautzera, Ursula Donea elkarteagaz**

Eguerdian bazkaltzera joango dira, sagardotegira

> M.O.

Bihar Gipuzkoa aldera egunpasa joango dira hainbat mañariar. Herriko nagusien Ursula Donea elkarteak antolatu du ekintza, eta goizeko 09:30ean ipini dute txangorako hitzordua. Donos-

Ursula Donea elkarteak antolatu du ekintza, eta goizeko 09:30ean ipini dute txangorako hitzordua

tiara ailegatzean, goiza libre edukiko dutela esan dute antolatzaileek; bakoitzak bere plana egin ahal izango du.

Eguerdian bazkaltzera joango dira guztiak, Aginaga sagardotegira. Ostean, Zarautzen arratsaldepeza egingo dute, azaldu dutenez.

Ursula Donea elkarteak bazkideek 25 euro ordaindu dituzte ekintzan parte hartu ahal izateko, eta bazkide ez direnek, ostera, 30 euro.

> IZURTZA**Santoñako paduretara egunpasa antolatu dute****> J.D.**

Erdoitzako Ama jubilatuen elkarteak eta Izurtzako Udalak egunpasa antolatu dute uztailaren 6ko zapatarako. 09:00etan ipini dute hitzordua herriko plazan. Oraingo honetan, Kan-

tabriara joango dira, eta Santoñako padurak batzen dituen parke naturala bisitatuko dute. Ondoren, inguru hartako jabetxe batean bazkalduko dute. Guztira, 46 jubilatuk eman dute izena egunpasa horretarako. Santoñako Parke Naturalak 6.678 hektarea hartzen ditu. Paisaiagatik ez ezik, bertako faunagatik ere oso ezaguna da, besteak beste, hainbat hegazti migratzaile bertan batzen direlako.



Durangoko Poliklinika estreinatuko berri dugu, DURANGOKO DIAGNOSTIKO ZENTRO berria irekitzean. Bizkaiko erradiologo esanguratsuez osatutako taldeak dakarren esperientzia zabala da zentro honen berme nagusia.

EREMU HANDIKO ERRESONANTZIA MAGNETIKOA

Durangaldeak badu jada, aurrenekoz, Erresonantzia Magnetikoaren Zerbitzua; teknologiarik aurreratuenarekin, diseinu konpaktuko imanarekin, eta tunel ultra labur batekin (145 cm), beste erresonantzia batzuetan sor daitekeen klaustrofobia sentsazioa saihesteko.

MUTUA NAGUSIEKIN ARI GARA LANEAN!



Zatoz eta ezagutuz

Intxaurrondo kalea, 19. DURANGO
(karmeldarren komentua zaharrean)

Tel.: 94.466.86.68
cddurango@gruposcanner.biz

➤ Berbaz

Lala Mujika | Aldarte, lesbiana gay eta transexualen arreta zentroko kidea | 54 urteko bilbotarra



“Gizartea ez da lehen bezain homofoboa, baina badaude aurreiritziak; sotilagoak dira”

Gaur Lesbiana, Gay, Bisexual, Transexual eta Intersexualen (LGBTI) Harrotasun Eguna da. Lala Mujika Aldarte elkarteko kidea Elorrioren izan da asteon. Kolektiboaren eskubideetan egin den ibilbidea, eta herrian egin daitezkeen ekintzak izan ditu berbagai.

➤ AMAIA UGALDE

Lesbiana, gay eta transexualen arreta zerbitzua eskaintzeko sortu zen Aldarte 1994an. Orditik eta lehenagotik dabil Lala Mujika bilbotarra LGBTI kolektiboaren eskubideen alde militatzen. Elorrioren, azken urteetako errepaso historikoa egin eta gero, herri mailan zelako egoera dagoen eta zer egin daitezkeen landu dute bere berbaldian.

Aldarte zentroan ia hogeitau urte daroatzazue lanean. Asko aldatu da gizartea urteotan?

Nahiko ibilbide interesgarria izan da. Hasi ginenean, 1994an, oraindik gizartean oso gutxi berba egiten zen LGTBI kolektiboaren eskubideei buruz. Orduantxe hasi ziren aldarrikapen guztiak; izatezko bikoteak, adopzioa, ezkontza... Legeek aldarrikapen askori erantzuna eman diote orain, eta aurrerapen sozialak egon dira. Gizartea gay, lesbiana eta transexualak eza gutzen joan da, eta orokorrean, irekiagoa eta tolerantetagoa egin da aniztasun sexualagaz.

Aldarten zelan igarri duzue aldaketa hori? jendeak beste behar batzuekin jotzen du zueganara?

Lehen, premiak dramatiko-

goak ziren. Familia proiektu bat eduki eta legeen babesik ez zuen jendeak, joera sexuala sekretupean zeukan beste jende askok... Arazo pertsonalekin etortzen ziren; homosexualtasuna bere inguruan oso txarto hartu zutelako, gurasoek ez zutelako onartzen... Hori aldatzen joan da gizartean, eta orain, norbanako mailan sufrimendu gutxiago dago. Aldartera gerturatzen den jende askok aukera sexuala ondo bizi du, eta jendea ezagutzeko eta debaterako espazio bila datoz. Informazio eta aholkularitza juridikoa ematen dugu; zelan adoptatu daitezkeen, zeintzuk diren izatezko bikotearen eta ezkontzaren arteko ezberdintasunak...

Zer profiletako jendea joaten da informazio eske?

Geroago eta anitzagoa da datorren jendea. Etorrinak, adibidez, geroago eta gehiago etortzen dira. Hemen duela hogeitau urte egondako sekretu, isolamendu eta bakardade egoerak bizi dituzte. Adinari dagokionez, lehen 25 eta 45 urte bitartekoak ziren, eta orain gay eta lesbiana nagusiak eta gaztetxoak ere badatoz. Gainera, elkarteak eta erakundeak informazio eske etortzen dira, hezkuntzan sentsibilizazio kanpainak egiteko, edo Elorrioko moduko hitzaldietara joateko.

Sentsibilizazio kanpainen beharra badago, homofobia bizirik dagoen seinale da?

Homofobia ere aldatu egin da. Ez da 1994an modukoa. Orduan, gay, lesbiana eta transexual asko “armairuan” zeuden, eta ez ziren irtetera ausartzen. Eurentzako oso zaila zen euren sexualitatea modu naturalean bizitzea. Gizartea ez da lehen bezain homofoboa, baina horrek ez du esan gura aurreiritzirik ez dagoenik; aurreiritzi horiek sotilagoak dira orain. Aldartera, adibidez, oso jende gutxi etorri zaigu norbait jipoitu egin duelako. Orain, sotilagoa da. Atzo mutiko batek esaten zidan etxean homosexuala dela esan zuela, eta isildu egin zitzaizkiola. Batzuetan izaten da; “ondo, homosexuala zara,

“

Aurrerapausoak ez dira hirietan bakarrik igarri behar; kolektiboari begira Elorrioren zer lan egin daitezkeen jorratu dugu”

baina izan zaitez isilean, ez zaigu gustatzen publikoki agertu dezazun edo Ekainaren 28an karroza batean parte hartu dezazun”. Egia da sektore batzuk oso atzerakoiak direla; eliza katolikoak, ebanjelikoak... Orain homosexualak ‘sendatzeko’ gida-liburuak ateratzen dabilta, duela aste bi entzun genuen albisteetan. Gaur egun, beharbada inork ez dizu kaletik iseka egingo, baina oraindik bigarren planoan dagoen kolektiboa da, eta lan asko dago egiteko.

Aste hauetan tira-birak egon dira Frantzian, homosexualen ezkontzak legeztatu berri.

Ikaragarria da. Aniztasun sexualaren kontrako sektoreek oso txarto hartu dute legea. Oso sektore atzerakoiak daude oraindik, eta hemen ezin da esan “dena lortu dugu, eta hartu dezagun atsedena”. Aurrera egiten jarraitu behar dugu, errespetua erreala izan dadin. Ez dadila tolerantzia hutsa izan: “nik toleratzen zaitut; ez zaitugu joko, baina ez ezazu zarata askorik egin, oraindik ez dugulako sinistu zure berdina zarenik”. Horrelako iritziak asko daude oraindik. Hezkuntzan dagoen *bullinga*, adibidez. Eskoletan, gazte asko ez dira ausartzen gay, lesbiana edo transexualak direla esaten.

Esanez gero, askotan barreak, burlak eta erasoak jasaten dituzte ikaskideengandik. Homofobia ez da agertzen lehen bezain gordin, baina badaude esparruak.

Elorrioren, gaia herri mailan zelako planteatu duzue.

Trantsiziotik gaurdainoko ibilbideari buruz berba egin dut. Aurrerapausoak egon dira, eta horiek ez dira bakarrik hirietan igarri behar; herririk herri eta etxez etxe igarri beharko lirarteke. Elorrioren gaia zelako dagoen eta aurreiritzi horiek zelakoak diren landu dugu, eta kolektiboari begira herrian zer lan egin daitezkeen ere bai.

Zer aldarrikatu gurako zenuke ekainaren 28 honetan?

Aurten, Aldarteko kideok, Euskal Herriko beste eragile guztiekin batera, giza eskubideen inguruko hausnarketa kaleratzen gabilta. Frantziakoa oso deigarria izan da, baina ez da hori bakarrik: Errusian, gay eta lesbianen elkarteak debekatzen dabilta eta kalean manifestatzea debekatzen. Ugandan heriotza zigorra onartzekotan dabilta, Brasilgo parlamentuak homosexualak sendatzeko terapia psikologikoei buruzko egitasmo bat onartu du... Ankerkeri asko gertatzen dira oraindik.



JATETXE GIDA

ÑAM!



PLATERUENA kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a

Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak. Askariak.

ÑAM!



PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ

Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua. Karta. Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.

ÑAM!



MENU BEREZIA

Sarrerakoak (2 aukeran)

Entsalada

Patata frijituak

Zatitutako txuleta errea

Postrea

Ogia eta edaria

60€
bikoteko
(BEZ barne)



JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ

Tel.: 94 682 40 77

ÑAM!



NERE JATETXEA

San Agustinalde, 4 DURANGO

Tel.: 94 620 39 10

Eguneko menua. Eguedietan: entsaladak, errazioak eta plater konbinatuak.
Ostegunetik igandera karta berezia gauero.



**Profesional onenak
zure zerbitzura!**

ÑAM!



HURI BARRENA

Huribarrena, 8 OTXANDIO

Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak. Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.

> PROGRAMAZIOA

Elorrioko jauregiak eta plazak munduko kulturen erakusleiho, Musikaireri esker

Domekan hasiko da Musikaire 2013, eta hamaika musika eta antzerki emanaldi dakartza Elorriora

> ITSASO ESTEBAN

Vieux Farka Touré malitarrak —aldameneko argazkiko musikariak— itxiko du, uztailaren 28an, aurtengo Musikaire jaialdia. Ordura arte, baina, munduko kulturen erakusleiho izango dira Elorrioko plaza eta jauregiak uztailean. Hamaika emanaldi eskainiko ditu Musikaire jaialdiaren programazioak: denak doakoak eta herritar guztiei irekiak. Zortzi musika emanaldi, dantza ikuskizun bat eta musikal eta antzerki emanaldi bana izango dira aurten.

Garikoitz Mendizabal txistulariak zabalduko du, domekan, Musikaire, eta Kepa Junkera, Pello Ramirez, Mariano Santamaria, Xabier Zabala, Oihane Igerbide eta Iñaki Telleria musikari handiek lagunduta jardungo du Lariz jauregiko emanaldian. Instrumentu tradizional horrekiko

Zortzi musika emanaldi, dantza ikuskizun bat, eta musikal eta antzerki emanaldi bana izango dira

“aurreiritziak apurtzea” izango dute saio horretan helburu.

Euskal Herriko beste hainbat musikari handik ere joko dute datozen asteetan, Elorrión: batetik, *Oroimenaren oraina* lana eskainiko du Benito Lertxundik uztailaren 13an, Elorrioko plazan; eta bestetik, bi belaunalditako lau jazzlari euskaldunek lagunduta jardungo du Hasier Oleaga bateria jotzaileak, uztailaren 19ko emanaldian. Harekin batera, Iñaki Salvador, Jon Piris, Mikel Andueza eta Julen Izarra dira Hasier Oleaga Quintet.

Vieux Farka Touré musikari malitarrak itxiko du 2013ko Musikaire: uztailaren 28an eskainiko du kontzertua

Goi mailako musikari euskaldunetz gainera, munduko beste txoko batzuetakoak ere bildu ditu Musikaire jaialdiak: flamenkoa eta jazz uztartzen dituen Jerez Texas, Alondra Bentley, Diouke, Antonia Font... Estilo anitzekoak, eta kalitate handikoak den-denak.



IKUSKIZUNEN AGENDA

Ekainaren 30ean, 20:00etan, Lariz jauregian
Garikoitz Mendizabal

Uztailaren 5ean, 22:30ean, Lariz jauregian
Antonia Font

Uztailaren 6an, 22:30ean, Lariz jauregian
Jerez Texas

Uztailaren 7an, 22:30ean, plazan
Peter Pan musikala

Uztailaren 12an, 22:30ean, plazan
En el nombre de la rosa

Uztailaren 13an, 22:30ean, plazan
Benito Lertxundi

Uztailaren 19an, 22:30ean, Tola jauregian
Hasier Oleaga Quintet

Uztailaren 20an, 22:30ean, Tola jauregian
Alondra Bentley

Uztailaren 26an, 22:30ean, plazan
Diouke

Uztailaren 27an, 22:30ean, plazan
Dantzaz konpainia

Uztailaren 28an, 22:30ean, plazan
Vieux Farka Touré



Antzerkia, musikal bat eta dantza, egitarau berean

‘En el nombre de la rosa’ antzezlan, ‘Peter Pan’ musikala, eta Dantzaz konpainiaren emanaldia ere izango dira Musikairen

Umberto Eco idazlearen izen bereko nobelan oinarrituriko antzezlan dakar Ados Teatroa konpainiak, Musikaire-ra. Uztailaren 12an, 22:30ean eskainiko dute. Intrigaz beteriko istorioa da *En el nombre de la rosa* lanekoa: abadetxe batean gertaturiko hilketak susmagarriak

Bergarako Musika Eskolako kideen ‘Peter Pan’ musikalaren emanaldia ere barne hartzen du Musikaireko egitarauak

argitu nahian, Guillermo de Baskerville eta haren ikaslearen ibilerak kontatzen ditu. Karra Elejalde eta Juan José Ballesta dira obrako antzezle nagusiak.

Arrakasta handiko Bergarako Musika Eskolako kideen *Peter Pan* musikala ere barne hartzen du Elorrioko 2013ko Musikaire jaialdiak. Musika eskola horretako ikasleen eta irakasleen talde instrumentalak eta umeen abesbatzak jardungo dute ikuskizun horretan.

Dantza garaikideko ikuskizuna dakar, bestalde, Dantzaz konpainiak, Elorriora: Itzik Galili eta Jacek Przybylowicz koreografo ezagunak gonbidatu dituzte lan horretan parte hartzera.

> KONTZERTUA

Musika barrokoa entzungai, JAED elkartearen eskutik, Durangon

Doinuzahar, Aula Boreal eta Los Tonos Humanos taldeak ariko dira zuzenean

> ITSASO ESTEBAN

Uda ostean ere, elkartearen urteurrena ospatzeko bestelako ekimenak antolatuko dituztela aurreratu dute JAEDeko ardura-dunek, baina momentuz, bihar-ko Andra Mariko kontzertuagaz itxiko dute oporren aurretiko egitaraua: Los Tonos Humanos eta Doinuzahar abesbatzak eta Aula Boreal talde instrumentala ariko dira bertan.

1982an Durangon sorturikoa da Doinuzahar abesbatza,

De Algarabel y Arroyoren konposizio bi interpretatuko dituzte bihar, Durangoko Andra Mariko kontzertuan

hamarkada berean Galdakaon sortu zuten Los Tonos Humanos abesbatza eta Euskal Herriko Unibertsitatearen inguruan jaio zen Aula Boreal. Musika barro-

koan eta Errenazimentukoan espezializaturiko taldea da Aula Boreal, eta antzinako musiken ikerketan ere jardun dute bertako kideek. Durangon, bihar, Da-

niel Garayren zuzendaritzapean ibiliko dira hiru taldeak.

Andres de Algarabel y Arroyo XVII. mendeko konpositorearen obra bi interpretatuko dituzte: Gabon kanta bat eta *Nunc dimittis sérvum túum* meza. Mexiko DFko katedraleko artxibotik berreskuraturiko mezarako konposizioa da bigarren hori: klasizismoaren erakusgarri da, eta instrumentazio landua eta bertuosismoa uztartzen ditu.



GEURE DURANGALDEA

LIBE MIMENZA

Kazetaria



Publikoa

1. izond. Ezaguna eta agerikoa dena; jendaurrekoa.

Maite Iturbek dio *eitb.com* atariko langileak 20 di-rela, baina M4F enpresako —EITBk berak bere burua azpikontratatzeko sortutakoa— 60 langile greba mugagabea daude, gezurra publikoki salatzen.

EITBk aginduta, enplegu erregulazio espediente baten ondorioz, M4Fko 27 lagun kaleratuko dituzte, beste lauri erdira murriztuko zaie lanaldia, eta garzen diren gainerakoei soldata %25era arte jaitsi, prekarioa zena duintasunik gabe lagaz.

2. izond. Herritar guztiei dagokiena, pribatua ez dena.

Batzuek ahaztuta dute herritar guztiona dena kudeatzea dagokiela. Eta ez euren balitz bezala nahieran moldatzea. Erantzukizun handiko betebeharrak da denona den hori zaintzea, eta erantzukizuna ez da inondik inora ageri unean uneko bozgorailu politiko bihurtutako txirringitotan.

3. iz. Toki batean bildurik, ikusle edo entzule gisa batez ere, dagoen lagun multzoa.

EITBk dituen itoginak erabaki (in)kontzienteez eraginak dira. *Eitb.com* kolokan jartzea anputazio larria da. Etxe berria eraiki zenuten, baina bizilagunak gabe xahuketa justifikatzen ezina dela ahaztu duzue.

Publikoa ez da ikusentzule soila, ez du zertan toki batean bildu, baina bilduta egiten du oihu. Langileak dira erantzukizuneko jokatzeko moduko borrokan, jo eta ke. Zentsura eta eskubide urraketak publiko eginez. Greba mugagabea, langile guztiak bat eginda, egunez egun euren egoera entzunarazten. Zuena bai dela borroka eredu!

> SARIA

Sugarri taldeari Haizetara jaialdiko publikoaren saria

4.000 euroko saria jaso du Durangoko taldeak

Amorebieta-Etxanoko kaleak musikaz bete dituen Haizetara lehiaketako publikoaren saria jaso du Durangoko Sugarri fanfarreak: 4.000 eurokoa. Le Bus Rouge talde frantziarrari eman dio epaimahaiak Haizetara jaialdiko sari nagusia.

Durangoko Musika Bandako musikariek duela hiru hamar-

kada inguru lagunartean sorturiko taldea da Sugarri, eta gaur egun, Bizkai eta Gipuzkoako hainbat herritako 15 musikarik osatzen dute. Oso errepertorio anitza eskaini zuten Amorebieta-Etxanon: Alaskaren, Xabier Leteren, AC/DCren edota Su ta Gar-en bertsoak eskaini dituzte, besteak beste.



> MUSIKA

Bartolome Ertzillatik Musikene kontserbatoriora

Musikene kontserbatorioan sartzeko probak gainditu dituzte Durangoko musika ikasle bik

Musikene Euskal Herriko goi mailako kontserbatorioan sartzeko probak gainditu dituzte Durangoko Bartolome Ertzilla kontserbatorioko Ane Ibarra eta Elena Arbonies ikasleek. Datorren urtean, goi mailako klarinete ikasketak egingo ditu Ane Ibarrek Donostiako goi mailako kontserbatorioan, eta klarinete ikasketak egitera joango da Elena Arbonies. Atzo

Goi mailan ikasten jarraitu duten musikari askoren harrobia izan da Bartolome Ertzillatik kontserbatoriora

egin zuen proba, bestalde, Karol Argiarro txistulariak.

Espainiako eta Frantziako hautagaiak aurkezten dira, urtero, Musikenen sartzeko probetara, eta plaza gutxi dagoelako, oso zorrotza izaten da azterketa: lehia handia izaten da bertara sartzeko.

Durangoko Bartolome Ertzilla eskolako erdi mailako kontserbatoriora 2007-2008 ikasturtean ipini zuten martxan, eta goi mailan ikasten jarraitu duten musikari askoren harrobia izan da Durangon: Nafarroako goi mailako kontserbatorioan dabilta Bartolome Ertzillan ikasle izandako Ekaitz Mardaras, Nerea Aizpurua eta Asier Elias, eta Musikenen dabil Dani de Valle.

Hemen agertu gura badozu deitu!

94 621 79 02

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

LOS JUBILADOS DE SANTIAGO
EKAINAK 30 19:30ean
 LOS JUBILADOS DE SANTIAGO
 Musika kubatarra zuzenean.
 Sarrera: 10-12 euro.

UZTAILAK 6 22:30ean
NJAAYA
 MUSIKA SENEGALDARRAREN BELAUNALDI BERRIA.
 +Gunflow eta Beat Salad Crew.
 Antolatzaileak: HIF HAF entertainment eta Durangoko Senegal elkarte JAPOO
 Sarrera: 5-8 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
 Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

CABARET
 The Petit Théâtre de Pain

Uztailak 6 • 20:00

Ezkurdin (eurria bada San Agustin kultur gunean)

San Agustin KULTUR GUNEA
 DURANGOKO UDALA

Zalao Fuertes | Querétaro (Mexiko), 1983. Abadiñon bizi da | Argazkilaria

“Oso inpaktu handia izan da nire argazkiak tamaina honetan inprimatuta ikustea”

Lau argazkiko ‘Azala’ instalazioa ipini du Zalao Fuertes argazkilaria Durangoko Plateruenerako fatxadan ikusgai. Begira jaialdiaren ekimena da

> ITSASO ESTEBAN

Nondik sortu da Plateruenerako instalazio hau paratzeko ideia? Iaz, Begira jaialdiko tailer batean parte hartu nuen, eta bertan ezagutu nuen Leo Simoes Begirako koordinatzailea. Abenduan erakusketa honetarako proposamenarekin etorri zitzaidan. Hasieran ez nuen argi ikusi, errespetua ematen zidan, jaialdira oso jende ona etortzen delako... Baina animatu ninduten, eta azkenean, onartu nuen.

Lehenengo aldia da zure lana honelako formatuan erakusten duzuna?

Bai. Oso inpaktu handia izan da nire argazkiak tamaina honetan inprimatuta, eta gainera, fatxada batean ikustea.

Plateruenerako terrazan kafea hartzen duten guztiengana zure argazkiak helarazi ahal izateko aukera polita da, ezta?

Zorte handia da, bai. Kaleko zer edo zer kalera eroatea da: uste dut margo bat edo argazki bat ez dela zertan beti museo batean erakutsi, eta sozialagoa egiten zait aukera hau: askoz jende gehiagorengana ailegatzeko aukera paregabea da.

Zelakoa izan da abendutik honako sorkuntza prozesua?

Oso gogorra eta era berean, oso aberasgarria. Barruko sentsazioekin lan egitea oso zaila izaten da, pentsamendu horiek oso abs-

traktuak izaten baitira askotan. Blokeo une asko bizi izan ditut, eta laguntzen eduki ditut bai Leo Simoes, bai eta Ricky Davila argazkilaria ere.

Zer gomendio jaso dituzu argazkilaria horiengandik?

Itxuraz polita denari barik, barrukoari, benetakoari, garrantzia ematera bultzatu naute. Asku ikasi dut, akuilu izan ditudalako bilaketa horretan.

Zein da ‘Azala’ proiektuaren azpiko oinarritzko ideia?

Barruan dagoena eta kanpokoan banatzen dituen muga da azala. Kontzeptu horren inguruan egin dut gogoeta, eta hortik dator proiektuaren izenburua.

Ikusgai dauden lau lanak baino gehiago sortu dituzu?

Pentsa, 500 argazki inguru inprimatu ditut, eta horien artean egin dut aukeraketa: zeintzuek

“

Blokeo une asko bizi izan ditut, baina laguntzen eduki ditut Leo Simoes eta Ricky Davila argazkilaria”

daukaten indarra, zeintzuek adierazten duten ondoen kontatu gura dudana hori, eta abar kontuan harturik. Kolorezko eta zuri-beltzeko 20 aukeratu ditut, eta horiek osatzen dute *Azala* proiektua. Horietariko lau dira hemen ikusgai daudenak.

Hau baino proiektu zabalagoa da, ‘Azala’, beraz?

Bai, epe luzerako proiektua da osatu gura dudana. Ehun bat argazki sortzea eta liburu batean biltzea da nire ideia, edo proiektu bat egitea. Oso motibatuta nago lan honekin.

Instalazio honetan ipini dituzun lau argazki hauek zergatik aukeratu dituzue?

Formatuagatik aukeratu ditut, batez ere. Beste argazki batzuk ere badituzte ederrak, baina oihal batean inprimatu ditudanez, pentsatu nuen ezin zirela detaile askoko argazkiak izan. Oso gustuko ditut beste argazki batzuk ere, baina kanpoan uztea erabaki dut, orainoan.

Beste eraren batean ere parte hartuko duzu Begiran?

Bai, Valbuenaren tailerrean parte hartuko dut. Iaz parte hartu nuen tailer batean lehenengoz, eta oso betegarria iruditu zitzaidan: besteen lanak ikusten dituzu, eta zure proiektuari heltzeko bultzada jasotzen duzu. Oso jende adituak zure lana kritikatzetik ere asko ikasten duzu.



> MUSIKA

Kubako doinuak eskaintzera datoz Los Jubilados de Santiago, domekan

Durangoko Platerueneran joko dute, 19:30ean hasita, musikari kubatarrek



Udako geldidiaren aurretik, Durangoko Plateruenerako azkenurreko kontzertua eskainiko dute Kubako Los Jubilados de Santiago taldekoek, etzi. 70 urtetik gorako musikariek osaturiko taldea da, eta Europan kontzertu bira eskaintzen dabilta, ekain eta uztaile honetan.

Guarachak, guaguancóak eta boleroak eskainiko dituzte Los Jubilados de Santiago-koek Durangon

Kubako Santiagon, 1994an bi musikari belaunaldiren elkartetik sorturiko zortzikotea da Los Jubilados de Santiago.

40ko eta 50eko hamarkadetan Kubako musika mugimenduan aritutakoak dira denak, eta urteetan musikatik aldentuta egon ostean, oholtzetara bueltatzea erabakitzean sorturiko proiektua da domekan, Platerueneran, entzungai izango dena.

Son doinu tradizionalenak eta musika garaikidea uztartzen ditu taldeak, eta Durangon ere, guarachak, guaguancóak eta boleroak ere eskainiko dituzte zuzenean. Urteetan ahazturiko Kubako doinu tradizionalak biziberritzen dituzte Los Jubilados de Santiago-koek.

Europako hainbat txokotan hamasei kontzertu eskainiko dituzte ekain eta uztailean, eta Alemaniara joango dira domekan, Durangoko kafe antzokian kontzertua eskaini eta gero.

OSASUN GIDA

FISIOTERAPIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

tel. 94 465 71 32 - 686 906 374

RPS: 119/13

Oreka
Idurre Zabala Amezua

**FISIOTERAPIA
ETA ERREHABILITAZIOA**

Erditze aurreko eta ostekoa, txizari ezin eustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua, drenatze linfatikoa (masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 - behe ezkerre
48240 BERRIZ

tel. 94 622 55 93

PSIKOLOGIA

JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz

tel. 94 603 32 46 - 629 245 728

RPS: 62/11

PODOLOGIA

JON GERRIKAETXEBARRIA

Gaixotasunak - Ortopedia
Oinaren kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA

Ermodo, 2 - 1 eskuma
48200 DURANGO

tel. 94 620 11 00

RPS: 108/13

GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOA

Kirropodia, Onikopatia, Alterazio Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4 - behea
48200 DURANGO

tel. 94 620 36 30

ESTETIKA

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaDurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

*Obesitatea-zelulitisa,
Laser: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botox...*

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

tel. 94 681 03 87

RPS: 16/09

ODONTOLOGIA

**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Murueta Torre, 2 - C behea
48200 DURANGO

tel. 94 681 99 51

RPS: 145/13

J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk
48200 DURANGO

tel. 94 681 22 00

RPS: 112/13



**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**

JAIAK!

2013ko UZTAILA | ZALDIBAR



Zaldibarko Udalak

Udako Jai Zoriontsuak
opa deutsuez zaldibartar guztioi



ZALDIBAR
Elizateko Udala

ZALDIBARKO JAIEN EGITARRAUA

Ekainaren 28a, 29a eta 30a

Eskualdeko XXIII. Areto-futbol Txapelketa, kiroldegian.

Ekainaren 30a, domeka

08:30-14:00 XXX. Argazki Rallya.

Uztailaren 4a, eguena

18:30 Herriko jendeak donien-atxa ipiniko du, eta jaietako kartelen lehiaketako sari-banaketa egingo da udaletxean.

19:00 Aureskua. Jaien hasiera iragartzeko, udaletxetik txapligua jaurtiko dute Txosna Batzordeko partaideek. Gero, kalejira, Koral elkarte txistulariekin eta buruhandiekin.

20:00 Trikibertsopoteoa, txosnetan hasita.

20:00 Odoloste-jana, Bekoetxe kalean.

21:30 Afizionatuen arteko pilota partiduak, Olazar pilotalekuan.

22:30 Dantzaldia: Guateque años 60, diskoteka mugikorra eta Disco Music Dj-a, Euskal Herria etorbidean, Helmugak antolatuta.

Uztailaren 5a, barikua

11:00-13:00 / 16:00-19:00 Umeentzako parkea, eskolan.

16:30 Durangaldeko Eskolarteko VI. Pilota Txapelketaren finala, Olazar pilotalekuan.

16:30 Gazte mailako Bizkaiko txirrindulari itzuliko etapa: Zaldibar-Zaldibar.

17:00-19:00 Ginkana, gaztelekukoak.

17:30-20:00 Eskularen erakusketa, Jubilatuen Etxearen azpiko solairuan.

18:30 Kalejira Elektrotarangarekin, txosnetan hasita.

21:15 Afaria txosnetan eta bideo emanaldia: "Txosnaguneak 10 urte"

23:00 Kontzertua: EZINEAN EUTSI.

03:00 Kulero eta galtzontzilo lasterketa.

Uztailaren 6a, zapatua

10:00-13:00 Arku tiroa ume eta nagusientzat, arku taldearen galerian.

12:30-14:00 Tortilla txapelketa, eskolan.

16:00-19:00 Saskibaloia partida 3x3, (mutilak eta neskak) eskolan.

17:30-20:00 Eskularen erakusketa, Jubilatuen Etxearen azpiko solairuan.

18:00 Elkarteen arteko VIII. Olinpiadak parkean, eta kale-animazioa.

19:30 Afari-merienda Olea kalean: solomoa (1 euro) eta sardinak (2 euro). Giroa berotzeko, Mariskal Dj-a.

19:30 Mojito-poteoa, Elektrotarangarekin.

22:00 Rock kontzertua: SKAKEITAN eta LAKET. Erromeria txosnetan.

Uztailaren 7a, domeka

10:30 Eskolarteko Txirrindulari Proba. Kategoriak: hasiberriak, kimuak eta haur kategoriakoak.

11:00 Kalejira dultzaineroekin eta Errotxapea konpartsarekin.

12:00 Euskal dantzak Zaldua plazan.

16:00-18:00 Kalejira dultzaineroekin eta Errotxapea konpartsarekin.

17:30-20:00 Eskularen erakusketa, Jubilatuen Etxearen azpiko solairuan.

18:00 Bertsolariak, Zaldua Elizateko plazan. Balkoitik balkoira: Jon Martin, Odei Barroso eta Oihane Perea.

22:00 Jaietako bideoen emanaldia.

23:00 Su artifizialak Autonomia kalean.

Uztailaren 13a, zapatua

08:00 Mendi ibilaldi neurtua. Irteera: Zaldua plaza.

18:00 XXX. Argazki Rallya: sari-banaketa liburutegi zaharrean.

Uztailaren 14a, domeka

12:00 Euskal dantzak San Martinen.

BARATZA FRUITADENDA URDAITEGIA

Sta. Isabel, 2 behea
Tel.: 946 225 063
48250 Zaldibar, Bizkaia



-Bokatak
-Musika onena
-Giro herrikoia

IMENDIA

- Bideo alokairua
- Fotokopiak
- Prentsa salmenta
- Gozokiak

Tel./Faxa: 94 682 74 13 - Zalduasolo E.7 - 48250 ZALDIBAR

Ekitaldiz betetako jaiak, aurrekontua doitu duten arren

Musikari dagokionez, Ezinean, Eutsi, Skakeitan eta Laket taldeak etorriko dira Zaldibarrera

> JOSEBA DERTEANO

Aurten aurrekontua murriztu beharrean izan direla azaldu zuten Rafa Urizar jaien arloko zinegotziak eta Arantza Baigorri alkateak jaiak aurkezteko egindako prentsurrekoan. Iaz udako jaiak eta San Andres jaiak antolatzeke 69.000 euro erabili zituzten; aurten helburu bererako 55.000 euro bideratu dituzte.

Hala ere, ekitaldiz betetako jai egitaraua aurkeztu dute. Hainbat nobedade izango dituzte aurtengo jaiak. Uztailaren 4an, eguean, donien-atxa ipini ostean Helmuga elkarteak dantzaldi berezi bat proposatuko du: 60ko hamarkadako goatekea. Diskoteka mugikorragaz eta Disco Music DJagaz 60ko hamarkada gaur egunera ekartzen ahaleginduko dira. Era berean, datorren zapatuan, sardina eta solomo janaren ostean, erromeria antolatu dute

Mariskal DJagaz: "Hasierako urteetan egiten zen, ondoren ohitura galdu genuen, eta aurten erromeria berreskuratzea erabaki da", azaldu zuen Rafa Urizarrek.

Musikari dagokionez, erromeriez gainera, rock jaialdi bi izango dira. Uztailaren 5ean, Ezinean eta Eutsi taldeek joko dute txosnagunean; biharamunean, berriz, Skakeitan eta Laket taldeen txanda izango da. Urtero jende asko batzen duen 'Balkoitik Balkoira' bertso saio berezian, berriz, aurten Jon Martin, Odei Barroso eta Oihane Perea bertsolariak gonbidatu dituzte.

Kartel lehiaketa

Aurtengo kartel lehiaketako irabazleen berri ere eman zuten prentsurrekoan. Nagusien lehiaketa Ainhoa Zabarte zaldibartarrak irabazi du, eta gazteen Enina Mohammedek.



Gazte mailako Bizkaiko Birako etapa bat lehiatuko dute Zaldibarren

Euskal Herria kalean hasi eta amaituko da; guztira, 180 bat txirrindularik parte hartuko dute

> J.D.

Jaietako kirol eskaintza anitzaren barruan, gazteen mailako Bizkaiko Bira txirrindularitza itzuliko etapa bat Zaldibarren hasi eta amaituko da. Uztailaren 5ean, 180 bat txirrindulari ibiliko dira lehian. Zaldibarren hasi, Berriz, Elorrio eta Abadiñotik bueltan etorri, eta Areitio eta Trabakutik igarota, Zaldibarren helmugaratuko dira (75 km).

Pilotari dagokionez, datorren barikuan Eskolarteko VI. Pilota Txapelketako finalak erabakiko

dituzte Olazar pilotalekuan. Arku tiro taldeak tradizio handia du herrian eta, ohi legez, jaietan kirol mota hori probatzeko aukera eskainiko diete gaztetxoei zein nagusiei pilotaleku azpian duten lokalean.

Zaldua saskibaloitako taldeak tortilla txapelketa eta 3x3ko saskibaloitako txapelketa antolatu ditu datorren zapatarako.

Azkenik, uztailaren 13an, 08:00etan, mendi martxa bat abiatuko da Zaldua plazatik Zaldua mendi taldeak antolatuta.

Kalejira trikitilari txapelkunekin eta Errotxapeako konpartsagaz

> J.D.

Uztailaren 7an, 11:00etan, Nafarroako Errotxapeako erraldoi eta buruhandien konpartsarekin eta dultzaineroekin kalejira hasiko dute udaletxeke plazatik. Arratsaldean ere, 16:00etatik aurrera giroa alaitzen ibiliko dira. Iaz ekarri zituzten lehenengoz, eta jendea gustura utzi zuten, aurten berriz ekartzea erabaki dute. Eurekin batera, azken hiru urteetan Euskal Herriko Trikitilari Txapelketa irabazi duten Elizagoien ahizpak (Etxalar, Nafarroa) ere etorriko dira. Kalez kale jai giroa ipiniko dute.

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR



EUSKO LABEL

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

Launa plus
Ondua



Bodegas *Launa*
Arabar Errioxa

www.bodegaslauna.com
info@bodegaslauna.com
Tel.: 94 682 41 08

Hamarkada bat beteta, Txosna Batzordeak botako du aurtengo jaietako txupinazoa

Hamar urte bete ditu Txosna Batzordeak eta, horren aitzakian, bertako kideak izango dira txupinazoa botatzeko arduradunak



Txosnagunean ospatzen diren olinpiaden aurreko edizio bateko irudi bat; aurten erakundeek hartuko dute parte, koadrilek beharrean.

> MARKEL ONAINDIA

Txosna Batzordeko kideak izango dira aurten Zaldibarko jaietako txupinazoa botatzeko arduradunak. Hamar urte bete ditu batzorde horrek, eta efemeride horren aitzakian emango diote hasiera jaiari. Gaur egun, Gaztetxeak, Herrirak eta Ernaik osatzen dute batzordea; eurek ipintzen dute txosna jaietan.

Txosna batzordekoek esan dute hamar urtean aldatu egin dela batzordea, eta orain ere erreleboa egon dela. Gogoan daukate hasierako une haiek. Alternatiba legez hasi zuten ibilbidea. "Gazteoi gustatzen zitzaigun ezer ez zen egoten jaietan", azaldu dute. Behar horri aurre

"Gazteoi gustatzen zitzaigun ezer ez zen egoten jaietan", azaldu dute Txosna Batzordeko kideek

Txosna Batzordeak taldea osatuko du olinpiadetarako, baita Castetek, jubilatuen elkarteak eta udalak ere

egiteko hasi ziren eurek ere jaiak antolatzen.

Ekimenak proposatu eta, gainera, udaleko Jai Batzordean parte hartzen ere hasi ziren geroago.

Bideoan batuta

Euskal Herria etorbidean kokatzen dute txosnagunea, ia udaletxearen ondoan. Jaietan erreferentzia esanguratsua da gune hori. Esaterako, herri afaria antolatu ohi dute urtero, eta 100 lagundik gora batzen direla adierazi dute batzordeko kideek. Aurten, uztailaren 5ean izango da afari hori, 21:15ean hasita. Gainera, txosnaguneak hamar urteotan eduki duen bi-

lakaera islatzen duen bideo bat ere eskainiko dute afari bueltan. Izan ere, batzordeko kide izandako hainbat lagunekin batu eta euren iritzi zein akordua grabatu dituzte.

Olinpiadetan, nobedadea

Zaldibarko jaietako beste ekitaldi arrakastatsu bat olinpiadak izaten dira. Urterik urte, koadriren artean jokoak egin dituzte. Parte hartzeko ekimen polita dela uste dute, "baita ikusteko ere", aitortu dute umoretsu. "Olinpiaderek arrakasta daukate, herri osoa etortzen da ikusten".

Aurten, nobedade bat dakarte olinpiadei dagokienez: koadrilaka barik, erakundeak jokatu-

dute. Txosna Batzordeak taldea osatuko du, baita Castetek, Gari Rock elkarteak, jubilatuek eta udalak ere. Talde bakoitzak zazpi kide edukiko dituela azaldu dute.

Hasiera, gogoz

Bestalde, txosnaguneak hartuko du Zaldibarko eskaintza musikala, bertan dago-eta eszenatokia. Ezinean, Eutsi, Skakeitan eta Laket taldeak egongo dira, besteak beste, rocka eta erromeria eskaintzen.

Uztailaren 4an jaurtikiko dute txupina Txosna Batzordeko kideek, eta euren gogo eta ilusioagaz hasiko dira aurtengo Zaldibarko jaiak.

etarte

Euskal Herria z/g. ZALDIBAR

T/F: 94 603 04 16

info@etarte.com

www.etarte.com

Barne diseinua - Obra proiektuak - Jarduera legeztatzeak
Dekorazioa - Erreformak - Ehunak - Altzariak

Sukaldeak - FENG SHUI teknika - koltxoi naturalak

Barne diseinatzailea: Garazi Burgoa Zuazo



Zaldibear

azkenengo
etxebizitzak!



2 logela 66,27 m² erabilgarriak

3 logela 85,18 m² erabilgarriak

Atikoak 88,1 m² erabilgarriak
+ 2 terraza (12,54m²)

**173.000€-tik
aurrera** (BEZ barne)

ETXEBIZITZA TASATUAK

Garaje eta trastelekuarekin

**138.000€-tik
aurrera** (BEZ barne)



ETXETXO

G. INMOBILIARIA

ETXEBIZITZEN SALEROSKETAK ETA ALOKAIURUAK

**ez galdu
aukera!**

Etorri eta informatu!

Frai Juan Zumarraga, 11 - 48200 Durango - 94 681 40 49 - 657 790 138

info@inmoetxetxo.com - **www.inmoetxetxo.com**

Jarrera asertiboa

Gure eguneroko bizitzan, nahi ez diren gertakizun asko izaten ditugu, eztabaidak, haserreak eta abar, eta bakoitzak bere izaeraren arabera bilatzen dio irteera... Batzuetan, hala-holakoa. Egoerei aurre egiteko, hiru jarrera daude.

Jarrera bat **pasiboa** da, ez dut ezer jakin nahi, utzi bakean eta halako irteerak bilatzen dituen. Batzuetan, norbere nortasunari edo iritziari kontra egiten diona.

Beste jarrera bat aurrekoaren guztiz kontrakoa da: **agresiboa** hain zuzen ere, erasoz erantzuten duena. Batzuetan, besteei errespetua ere galduta, gure barruko deabrua pizten da.

Pasibo eta agresibo jarrearen artean dago jarrera **asertiboa**. Norbere ideiak besteei transmititzeko trebetasuna da, besteak mintu eta haienganako begirunea galdu gabe, era baketsuan eta errespetuz.

Lehen aipatu dudana bidetik, arazoen aurrean jarrera bat hartu orduko, hausnartu egin beharko genuke, eta egoera zail guztietan biderik egokiena hartu. Ziur egon hiru jarrerak aplikatu ahal ditugula edozein egoeratan. Hau ulertzeko, pare bat adibide emango ditut.

Eman dezagun etxe batean, familian, asteburuan bazkaldu eta gero, bikoteen arteko eztabaida sortu dela, kide bat goizean goiz jaiki delako eta nekatuta dagoelako.

1.- Nekatuta nago lo kuluxka bat egingo nuke, baina liskarrik ez sortzeko, mahaiari geratuko naiz isil-isilik telebista ikusten (pasiboa).

2.- "Aizu! Goiz guztian firin-farin ibili zara, eta zuk harrikoa egiten duzun bitartean, nik lo kuluxka egingo dut (agresiboa).

3.-Maitea, gaur goiz ibili naiz eta ondo baderitzozu, zuk harrikoa egiten duzun bitartean, nik lo kuluxka egingo dut, gero ontzi-garbigailua hustu eta alabari etxeko lanak egiten lagunduko diot (asertiboa).

Beste kasu bat: ikasle batek eskola orduetara huts asko egin du, eta oso nota txarrak ateratu ditu. Maisuaren joerak:

1.- Honako hauek dira zure hutsak, hemen dituzu zure azterketak, eta begiratu emaitzei (pasiboa).

2.- Begira nolako notak! Huts pilo bat izan duzu! Zigortuta geratuko zara, eta etxera deituko dut. Hemendik aurrera akabo jaiak, bideojokoak eta lagunekin lokalean egotea, egunero lau ordu emango dituzu ikasten (agresiboa).

3.- Nota txarrak ateratu dituzu, hutsegiteak ere egon dira; horrela ezin izango duzu ikasturtea gainditu, gurasoekin hitz egingo duzue eta aurrerantzean, askoz gehiago saiatu beharko duzue, etxeko ikastorduek zorrotzago bete beharko dituzu (asertiboa).

Gure eguneroko harremanetan bi elementu agertzen dira nahasturik: arrazoiak eta emozioak; eta hortik dator gure komunikazioetan transmititzen duguna. Alde batetik, pentsatzen duguna, eta bestetik, sentitzen duguna. Bien arteko oreka lortzen dugunean asertibo izaten hasiko gara, eta beste trebetasun batzuk ere lantzeko aukera izango dugu, adibidez, entzute aktiboa edo empatia.

Praktikatu nahi izanez gero, hona hemen laguntza bat: ASERTIBOEN pentsatzen dutena esaten dute, sentimenduak eta adierazpenak bat datoz, besteenganako errespetua nabari da, eta honako esaldi hauek dira adierazle: *Badugu hitz egiterik? Egin dezagun... Nola konpondu ahal dugu hau? Zer iruditzen zaizu.... ?*

Ea egunero praktikan jartzen saiatzen garen.

Jabier Lekerika Larrabe - Zaldibar

Palestina eta Euskal Herria, elkartasun feministarekin bat

"Ez dugu sinisten emakumeok aske izango ez garen Palestina estatu independente eta laiko batean", Soraida Hussein militante feministaren adierazpenek indarrez eta gogoz hartu gaituzte Palestinan. Borroka feminista, nazio askapen borroka eta gatazka politikoaren irtenbidearen aldeko lanarekin uztartzen dabiltzala gaineratu digu Husseinek. Nahiz eta zehaztu digun, okupazio israeldarrak eta egun bizi duten blokeo egoerak borroka feministan eztabaida zein espazio propioak eraikitzerako orduan oztopo bat diren maiz. "Oso zaila egiten zaigu emakumeon eskubideen aldeko borrokan markatutako agendari jarraitzea okupazio/zapalkuntzaren ondorioz, bihotza Gazan dugulako" gaineratu du militante feministak.

Hala, banaketa geografiko, politiko eta sozialak ere eragin zuzena duela nabarmendu du feminismoaren bidean.

Adierazpenak, hitzak, begiradak eta besarkadak jaso eta ematen gabiltza aste honetan Euskal Herriko Mugimendu Feministako hainbat kide Palestinan, UNRWA Euskadi elkarteak ahalbidetutako bidaian. Bertako emakume eta talde feministen praktika politikoa ezagutzeko, harreman eta elkartasun zubiak eraikitzeko, eta emakume palestinarren egoera gertutik ezagutzeko asmoz gaude bertan.

Bizipen hauek guztiek benetan hunkitu gaituzte, ikaragarria baita bizitzako arlo guztietan palestinar herriak, eta bereziki emakumeek, bizi dituzten errepresio bide eta egoera ezberdinak. Izan okupazio israeldarraren edo izan bertako instituzio eta agintari patriarkalen eraginez. Hala eta guztiz ere, ez zaie indarrik falta, eta gogotsu dabiltza emakumeon eskubideen aldeko borrokan.

Horrela, Palestinako emakumeen eskubideen aldeko lana oso anitza dela esan dezakegu, erreallitateak bezain anitza. Hauexek dira lantzen dituzten gai eta aldarrikapen nagusiak: besteak beste, gaur egun indarrean dituzten lege berri eta zaharren (otomano eta egipziarrak) inguruko irakurketak eta horien gaineko aldaketen exigentziak; emakumeen jabeakuntza; indarkeria sexistaren inguruko sentsibilizazioa, sozializazioa, prebentzioa eta asistentzia zerbitzuak sortzea; emakumeen eskubideen inguruko informazioa eta aldarrikapenak kalean eta etxeetan ezagutarazteko bitarteko desberdinen sorrera; adin txikikoen arteko ezkontzen aurkako lanketa; herentzia eskubidea eta justiziarako irismena bermatzea.

Bukatzeke, Zienab Al-Ghonaimi Hayak zentroko militante feministaren hitzekin agurtzen gara: "ez dut zuen hizkuntza ulertzen, baina bai emakumeon hizkuntza".



Norone Bizkarra, Euskal Herriko Mugimendu Feministako hainbat kideren izenean - Gazan, 2013ko ekainaren 25ean

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU

Aralar



Sexu askapena

Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen kolektiboaren aldarrikapenak bidea egiten jarraitzen dute. Badirudi erritmo ezberdinak darabiztagula, ordea, Euskal Herrian edo beste herri batzuetan. Iparraldetik heldu zaigun azken albistearen arabera, esaterako, batzuk urrats batzuk atzerago dabiltzala ematen du; Estatu Batuetan, garrantzitsua izan da azken egunetan presidentek ezkontza homosexualen alde egin duen adierazpena.

Erritmo ezberdinak, baina guztiak norabide batean: eskubideen errekonozimendua, gizarte osoaren onepena eta berdintasuna; sexu askapena onartzea azken finean. Ezin delako giza eskubideen aurka legerik egin, giza eskubideak ez direlako legeekin aldatu, baizik eta ahalbidetu. Giza eskubideetan atzera egiten saiatu izan dira, hain zuzen, historiako pasarte ezberdinetan gobernu totalitarista asko, baita, bere modura, eliza katolikoa ere.

Eta oztopo guztien gainetik, sexu askapenaren mugimenduak aurrera jarraitzen du, goraipatzea merezi duen lana egiten. Aldarrikapen horiek zilegitasun osoa dute. Alferrrik da eskuin kontserbadoreak egiten duen saiakera, askatasun pertsonalaren errekonozimenduan atzera egiteko daukan joera, hemen, han eta mundu osoan.

Durango ere merezi du egindako bidea eta lana errekonozitzea eta horrengatik zorionak ematea. Batzuek testigua pasatu dizuete beste batzuei, eta lanean jarraitu duzue. Kontzientziazio lan ederra egin duzue, guztion eskubideak diren defentsan. Eskerrak eta aurrera bolie!

Laguntzaileak:



anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko ekainaren 28a
11. urtea - 507. alea

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretzi Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia eta Amaia Ugalde.
Maketazioa:
Ainhua Arizmendiarieta.
Zuzentzaileak: Goitz Etxeita.
Argazkilariak: Kepa Aginako, Zaldua Fuertes.

> Aisialdia

> MENDI IBILBIDEAK

Iazko Sapubike martxaren irudi bat, Mugarra atzean dela.

Sapubike, mendi bizikletarien bilgunea

Tabirako San Pedro jaien barruan, bihar egingo dute Sapubike martxaren bigarren edizioa

Bihar egingo dute Sapubike Martxaren bigarren edizioa. Durango MTB-Sapubike taldeak antolatzen du ekimena, eta Mugarra mendiaren altzotik garatuko da. Ibilbide bi prestatu dituzte, luzea eta laburra.

Luzeak 35 kilometro dauzka gutxi gorabehera, eta lau bat ordu iraungo duela aurreikusitako dute. Laburra 25 kilometrokoa izango da, bi edo hiru ordukoa. Goizeko 09:00etan irtengo dute Tabiratik; izan ere, Tabirako

San Pedro jaien barruan eraturako martxa da Sapubike. Lehia bakoa, azaldu dutenez. Mendi bizikletaz gozatzea izango da helburu nagusia.

Ia jaio berri dagoen ekimena izan arren, jende askok parte

hartzea espero dute antolatzaileek. 400 mendi bizikletarik eman ahal izango dute izena, zaletu horien guztien bilgune izan gura du Sapubikek.

Mugarra, erreferentzia

Mugarra mendia erreferentzia legez hartuta egingo dute ibilbidea. Tabiran hasi eta amaituta, honako hauek izango dira tarteko guneak: Orozketa, Neberondo, Izurtza, Bitano, Landaederra eta Larriganatxu. Ibilbide laburraren kasuan, ez dira Landaederratik pasako. Antolatzaileek esan dute kalitatezko martxa bat eskaini gura dutela, eta zale guztientzako modukoa izatea gura dutela. Datuak www.sapubike.com webgunean daude eskuragarri.

Durango MTB-Sapubike 51 lagunek osatzen dute gaur egun, eta Durangon dagoen mendi bizikletako talde bakarra da.



ZER IKUSI



Neberondo



Larrinagatxu



Landaederra

Iaguntzaileak



#talentueplazara!



Zuk jarri talentua
eta guk jarriko dizugu plaza!

16 urtetik gora badituzu eta
taldean zein bakarka haur eta
gazteentzako ikuskizun bat
eskaintzeko prest bazaude, zatoz!

Eman izena
uztailaren 12a orduko!

informazio
gehiago:

www.berbaro.com

☎ 946 201 918

🐦 @berbaro

📘 Berbaro Elkarte

Kirola

EGOITZ GARCIA | 27 urte, Atxondo |

“*Ihesaldiak hartzeko askatasun apur bat badudala esan didate*”

Cofidis taldeko txirrindulari atxondarrak bere lehenengo Frantziako Tourra lehiatuko du



Egoitz Garcia Apatako plazan, martitzen eguerdian, taldeagaz Frantziako Tourrera bidaiatu aurretik

> JOSEBA DERTEANO

Bere ibilbideko lehenengo Frantziako Tourraren atarian dago Egoitz Garcia (Cofidis). Navarro eta Taaramae taldeko liderrei laguntzea da bere zeregina, baina aukera duenetan, ihesaldiak hartzen ere saiatuko dela adierazi du.

Noiz konfirmatu zizuten Frantziako Tourrera joateko hautatuen artean zeundela?

Joan zen asteko eguenean. Banekien aurrehautatuen artean nengoela, baina erabateko konfirmazioa eguenean eman zidan taldeak.

Oso denboraldi ona egiten ari zara. Esperantzarik izango zenuen, ezta?

Taldeko managerrak hasieratik esan zidan Tourreko taldean gura ninduela. Baina harrezkero, eroriko batzuk izan ditut, eta horregatik azken unera arte zalantzak izan dituzte: guztiz erreperatuta ote negoen, zein zen nire sasoi fisikoa... Luxenburgoko Itzulia lehiatu nuen orain

gutxi, maila onean ibili nintzen, eta taldeak hautatuen artean ni ere sartzea erabaki du.

Zure lehen Tourra izango da. Bai. Apur bat urduri nago. Lehenengo Tourra dut, eta errespetua diot. Talde denak euren bederatzitxi txirrindulari indartsuenekin joango dira, eta tentsioa egongo da, seguru.

Tourretik zer da errespeturik handiena eragiten dizuna? Beharbada abiadura. Ohituta gaude kilometroak pilatzera, iaz Espainiako Itzulia ere parte hartu nuen, baina Tourreko erritmoa oso bizia izaten da. Denek aurrean joatea nahi izaten dute, eta erorikoak izaten dira. Adi ibili beharra dago.

Zein izango da zure zeregina? Taldeak zer eskatzen dizu? Saillkapen nagusiari begira, Dani Navarro eta Rein Taaramae ditugu. Esperientziadun txirrindulariak dira. Euren ondoan egoten saiatuko naiz. Behar dutenean laguntza eskaintzen saia-

tuko naiz, tropelean ondo kokatu behar dutenean, esaterako.

Taldelanagaz gainera, zeuretzako aukerak sortzen ere saiatuko zara?

Hiru-lau etapek aproposak ematen dute ihesaldiak sortu eta helmugaraino heltzeko. Ihesaldiak hartzeko askatasun apur bat izango dudala esan dit taldeak, eta egun horietan saiatu egingo naiz. Etapa horiek apur bat gorabeheratsuak dira, kota batzuekin, eta horietan saiatuko naiz.

Cofidis taldea bera zer helburugaz doa?

Saillkapen on bat lortzea dugu helburu. Taaramae txirrindulari gaztea da, eta Tour ona egingakoa. Taldeak asko espero du berarengandik. Navarro ere egundoko denboraldia egiten ari da; Dauphine Liberen Alberto Contadorren aurretik geratzea lortu zuen, eta sasoi onean dago.

Aipatu izan duzu zure etorkizuna klasiketan ikusten duzula. Bai, gehienbat klasiketan. Beti

“

Apur bat urduri nago. Lehenengo Tourra dut, eta errespetua diot. Denak txirrindulari indartsuenekin doaz”

“

Klasikak beti gustatu izan zaizkit. Batez ere klasiketan ikusten dut nire etorkizuna”

DATUAK

Jaioteguna:

1986ko martxoaren 31

Jaioterria: Atxondo (Apata)

Ibilbidea:

- 2010/11: Caja Rural

- 2011/13: Cofidis

Profesionaletan garaipenak

- 2012an Paris-Correze txirrindularitza proban saillkapen nagusia irabazi zuen.

gustatu izan zaizkit. Iaz hasi nintzen klasiketan parte hartzen, eta apurka-apurka esperientzia hartzen saiatu naiz. Lasterketaren batean aurrean eta onenen artean ibiltzea ere lortu dut eta, bai, batez ere, klasiketan ikusten dut nire etorkizuna.

Aurten hainbat klasiketan parte hartu duzu. Zer balorazio egiten duzu?

Ona. Klasiketan parte hartzen joan ahala, ikasi egiten duzu. Izan ere, mota horretako lasterketan aurrean egoteko alderdi asko hartu behar dira kontuan.

Iaz lehenengoz irabazi zenuen profesionaletako lasterketa bat. Aurten gutxienez lasterketa bat irabazteko behar hori sentitzen duzu?

Beti nahi izaten da irabaztea, baina kontuan hartu behar da lasterketa bakoitzean ia 200 txirrindulari ibiltzen direla, eta bakarrak irabazten duela. Denboraldia aurrera joan ahala garaipenik lortu ezean, urduritasuna handitzen doa. Baina alderdi horretatik lasai nago.

Bigarren denboraldia duzu Cofidisen. Zelan sentitzen zara?

Ondo egokitu naiz. Taldea ere gustura dago nigan. Nire dohainak kontuan hartuta, Frantzia inguruko lasterketak niretzako egokiagoak direla uste dut Espainiakoak baino. Kontratua eskaini zidatenean, ez nuen asko pentsatu behar izan sinatzeko.

Samuel Sanchez ez joatera, Euskaltel-Euskadik zer maila eskaini dezakeela uste duzu?

Ez dakit zer sasoi helduko den Igor Anton Tourrera. Beharbada, ez da beretzako itzulirik proposena; gehiago ikusten dut Italiako Giroan eta Espainiako Itzulia. Hala eta guztiz ere, maila handiko txirrindularia da. Gorka eta Ion Eizagirre ere beti hor egoten dira, ihesaldien ehizan eta etapa bila. Batak zein besteak etapa bat irabazteko dohainak dituztela uste dut.

> MENDI BIZIKLETA

Lejarretaren bideak zirenak, denonak bihurtuko dituzte

Abuztuaren 31n eta irailaren 1ean Euskal Herri osoan zehar diseinatutako 'Iñakiren Bideak' mendi bizikleta ibilbidea inauguratuko dute



Lejarretagaz batera, ekimeneko sustatzaile bi: Aitor Idigoras eta Valentin Tejero 'Tinín'.

> JOSEBA DERTEANO

"Iñaki Lejarreta modu berezian gogoratu gura genuen. Eta zer modu hoberik pedalei eragiten baino?". Aitor Idigoras arabarraren berbak dira, 'Iñakiren Bideak' ibilbidea sortzeko ideia izan duten lau lagunetako bateak. Abuztuaren 31n eta irailaren 1ean, Lejarretaren senideen eta tokian tokiko mendi bizikleta zaleen laguntzagaz, Euskal Herri osoko lurraz zeharkatuko dituen ibilbidea inauguratuko dute.

Berriz hasi eta amaituko da 'Iñakiren Bideak', eta, Bizkai, Gipuzkoa, Araba zein Nafarroatik ibiliko dira. Dena jarraian egiteko asmoa dute, gauez geratu barik, 40 ordu inguruan, eta horregatik erreleboka jardungo dute. Tokian tokiko mendi bizikleta taldeen (Altsasuko Burunda klubak, Iturriotz taldea...) edo zaleen artean banatu dituzte ibilbideko 350 bat kilometroak. Ez da mar-txa bat izango: "Ibilbide baten

estreinaldi moduan planteatu dugu. Ondoren, ibilbideetako track-ak ekimen honetarako sortu dugun blogean ipiniko ditugu eskuragarri, gura duenak gura duenean egiteko". Hau da bloga: inakirenbideak.blogspot.com.es.

Aitor Idigoras mendi bizikleta zale arabarra, Valentin Tejero 'Tinín' Lejarretaren fisioterapeuta izandakoa, Ekaitz Barrenkua mendi bizikleta zale durangarra eta Mikel Isasi Lejarretaren laguna daude ekimenaren atzean. Denek Lejarretaren bidez elkar ezagutzen dute: "Behin laurok genduela, ideiak botatzen hasi eta ibilbidearena proposa iruditu zitzaigun, be-

libilbidea prestatzeko orduan, tokian tokiko zaleen eta mendi bizikleta taldeen laguntza izan dute

tiko geratuko den zerbait izango delako". Senideei komentatu eta ondo iruditu zitzaion. Urtarri-lean hasi ziren lanean, eta dagoeneko lan handiena egin dute. Ibilbidea Berriz hasi eta Anboto ingurutik sartuko da Araban. Gasteiz eta Ozaeta igaro eta Trebiñu ondok Izkira joango dira. Ondoren, Nafarroan, Urbasa igo, Izkuera jaitzi eta Belate mendate (Baztan) ingurutik ibiliko dira. Gipuzkoako zatia kostaldetik egingo dute Oiartzun, Zarautz eta Deba zeharkatuta. Azkenik, Bizkaian sartu eta Oiz atzetik Berrizera joango dira.

Ibilbidean Lejarretarentzako esanguratsuk ziren hainbat tokitatik igaroko dira: "Oizen entrenatu ohi zuten. Gasteizen ere sarritan ibiltzen zen gugaz. Durruma Kanpezuko martxa urtero egiten zuten, eta Izkuero lasterketa bost-sei aldiz irabazi zuten". Lejarretaren leku kuttunak zirenak, bizikleta zale denek izango dira irailetik aurrera.

> PILOTA

Atxondoko gazteek ezin izan dute herri artekoa berri

Orain asteburu bi, Atxondoko pilota eskolako gazteek Bizkaiko Herri Arteko finala jokatuz zuten. Orozko izan zuten arerio, eta herri biek iazko finala errepikatu zuten. 2012an Atxondok irabazi zuen herri artekoa, baina aurten Orozko gehiago izan da.

Umetxoan mailako partidua 12-18 galdu zuen Enekok eta Fabelek osatutako bikoteak. Kimuen mailako partiduan finala berdindu zuten Egoitz eta Peio Axpe bikiek (18-6). Markagailuak besterik aditza eman dezakeen arren, final gogorak izan ziren.

Haur kategoriako partidua erabakigarrian, Josu Eguerenek eta Dani Rodriguezek 16-18 galdu zuten. Partidu erdira heldu aurretik, Rodriguezi eskua mindu zitzaion, eta hori izan zen finalaren gakoa.

> SPINNINGA

Bihar spinning maratoia egingo dute Abadiñon

Zapaturako II. Spinning Maratoia antolatu du Abadiñoko Udalak 10:00etatik 13:00etara. Guztira, 60 bat lagunek parte hartuko dute Astolako igerileku kanpoaldean antolatu duten ekimenean. Eguraldi txarra egiten badu, Zelaieta-ko probalekura lekualdatuko dute ekimena. Izen-ematea bost euro da igerilekuko bazkideentzat, eta zortzi euro bazkide ez direnentzat.

Iazko abenduan antolatu zuten lehenengoz spinning maratoia, eta haren harrera onak bigarren bat prestatzera animatu ditu antolatzaileak. Iazkoa Traña-Matienako pilotalekuan egin zuten. Aurtengo kokalekuak hainbat abantaila ditu: aldagela gehiago, esate baterako.

ADITUAREN TXOKOA



Eneritz Iturriaga

Txirindularitza

Kirola eta krisia

Bai, seguruenik dagoeneko nazkatuta gaude berba honekin. Lanik ez dagoela, aurpegi ilunak, hipotekak, urduritasunak, sasoi bateko bizimodu ezin bizi, desesperazioa, bai! Eta hori ez da txarrena, telebista 'zoragarri' honetan, politikari guztien ustelkeriak, dirua desbideratzeak, horrek eraman gaitu hitz famatu honen heinera. Baina lasai, denek egiten dutenez, "normala" da-eta! Hau dau hau panorama!

Beraz, imajinatu kirolean daukan eragina. Orain arte, Aldundiak zein udalerriek beti lagundu izan diete kirol arloko talde ia guztiei... Baina orain, "mozketak" direla eta ez direla, ez dago dirurik. Talde asko kolokan daude. Bertan daukagu Euskadi taldea, 14 gazteren ilusioa aurrera eramaten saiatzen... Baita saskibaloiko taldeak ere. Eta zer esanik ez nesken taldeei buruz mintzo bagara, ezin mutilen soldatetara iritsi. Asko desagertzen ari dira, eta daudenak ezin dute lasterketarik korritu edo kanpora joan behar dira diru faltagatik. Beti esan izan da, bai harro, euskalduna izanda kirola beti zainetan eraman dugula, baina orain zer?

Galdera edo gogoeta bat botako dute: zer nahiko zenukete zuten seme-alabentzako, kirolarekin pertsonalitatea, bizitzaren balioak eta euren ilusioak aurrera eramatea, edo ustel bihurtzea (telebistan ikusten den moduan), drogan edo alkoholen menpean sartzea?

Argi daukat, gaur egun kirolariok dauzkagun balioak ez dira kalean aurkitzen.

hitz
liburudenda
artekalea 14 durango 94 681 07 76
info@hitzliburudenda.com

R.P.S. 214/06
A. Urreta podólogo
PODÓLOGO 188. Elkargokidea

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarien kalea, 10 - beheka • Durango
Tel./Faxa: 94 621 54 04

> ARETO FUTBOLA

Laino beltzetik zeru urdinera aldatu da Mallabiaren egoera

Hirugarren Mailako taldeari eutsi eta talde berriak sortuko dituzte



Mallabia azken denboraldiko partidu batean. Zalao Fuertes

> JOSEBA DERTEANO

Ezinezko zirudiena egia bihurtu da. Mallabia areto futbol taldeak Hirugarren Mailan jokatzeari uko egin zion, ezin zutelako aurrekonturik batu, eta Bigarren Erregionalean hastekotan ziren datorren denboraldia. Laino beltzak, ordea, desagertu egin dira eta zerumuga urdina ageri zio orain. Hirugarren Mailako taldeari eutsi egingo diote, eta, Bigarren Erregionaleko eta kadete mailako talde bana sortuko dituzte. Hau da, talde nagusiari eutsi eta behetik gorako egitura bat sortzea lortuko dute.

Miraria izen biren bueltan gorpuztu da: Geronimo Ugarte eta Ibai Urien. Iaz Sasikoako

entrenatzaile izan zen Ugartek (areto futboleko lehen mailan Astorga eta Valentzia taldeak entrenatu ditu), eta Urien laguntzaileak taldea utzi zuten denboraldia amaitu aurretik. Zuzendaritzagaz izandako desadostasun batzuegatik gertatu zen.

Orduan, Mallabiko areto futbol taldeko presidente Juan Carlos Perezegaz batzartu ziren: "Berba egin ondoren, Hirugarren Mailako taldearen kargu egingo zirela adostu genuen, eta beharrezko aurrekontua batzeko prest zeudela azaldu zuten. Hainbesteko gogoia eta ilusioa erakutsi zuten ze, baiezkoa eman genien", gogoratu du Perezek. Hirugarren Mailako taldeak

aurrekontu indartsua behar du, eta gehiena batuta dute Tabira Color eta Simply babesleei esker. Horrez gainera, urteroko ekintzetan ahaleginak bibidertu egin beharko dituztela aitortu du Perezek 2014an egitura osoari eutsi gura badiote. Iaztik jarraitzen duten jokalariei, Sasikoatik etorriko bost-sei batuko zaizkie.

Orain urte bi, gazteen taldea zuten Mallabiak, baina iaz ezin izan zuten atera, diru faltagatik. Aurtan, besteak beste, jokalaria horiekin Bigarren Erregionaleko taldea ere osatuko dute. Horrez gainera, kadete talde berri bat aterako dute eta gazte mailako futbol 11ko bat ere bai, Zalduak utzitako jokalariekin.

> AUTOMOBILISMOA

Etxean lehen rallya irabazi dute Tarsiciok eta Peñak

Iban Tarsicio eta Iñigo Peña bikoteak Balcon de Bizkaia rallya irabazi du; euren ibilbideko lehena



Tarsicio eta Peña, Landako Guneko podiumean. Manu Rodriguez MRFoto.es

Iaz, euren ibilbideko lehen rallysprinta irabazi bazuten (Aramaion), joan zen zapatuan rally batean lehenengoz gailentzea lortu zuten Iban Tarsicio pilotu abadiñarrak eta Iñigo Peña kopilotuak, etxean eta zaleen aurrean gainera. Euskal Herriko Rally Txapelketari hasiera ematen zion Balcon de Bizkaia lasterketan nagusitu ziren Mitsubishi Lancer EVO IX baten barruan. "Probatzeko parte hartu genuen. Orain, lasterketa hori ere irabazi dugunez, txapelketa bietan jarraitzea hausnartzen gabilta. Momentuz, hurrengo rallyan ere parte hartuko dugu", adierazi du Tarsiciok. Une honetan, Euskal Herriko Rallysprint Txapelketako zein Euskal Herriko Rally Txapelketako lider da Durangalde Racing Elkarteko bikotea.

Balcon de Bizkaia rallyko bigarren postua Durangaldeko Racing Elkartean dabilen Xabier Lujauk lortu zuen.

> TXIRRINDULARITZA

Espainiako txapelkun biekin "animoz beteta" doaz Italiako Girora

Espainiako txapelketa irabazi duten Santesteban eta Sanchis Girora joango direnen artean daude

Domekan hasi eta uztailearen 7ra arte Italiako Giroan parte hartuko du Bizkaia-Durango taldeak. Joan zen asteburuko lorpenekin "animoz beteta" doazela adierazi du Jon Eloorriaga zuzendariak. Izan ere, Anna Sanchisek erlojupeko Espainiako txapelketako irabazi zuen, eta Ane Santestebanek errepideko Espainiako txapelketa. Horrela, aurrez markatutako helburuak bete zituzten.

Sanchis eta Santestebanekin batera, Polona Batagelj, Ruth Corset, Dorleta Eskamen-

di, Maialen Noriega, Irene Santesteban eta Joanne Hoganek osatuko dute Giroko taldea.

Eta baten ehizan joango dira. Mendiko etapetan Ruth Corset eta Anna Sanchis dituzte armarik nagusiak. Corset oraintxe batu zaie taldera, eta ikusi egin beharko da zer sasoi puntutan dagoen.

Sailkapenari begira, Sanchis hamar onenen artean sartu daitekeela uste du Eloorriagak, eta Santestebanek hogei onenen barruan sartzeko aukerak dituela.



Bizkaia-Durango txirrindulari taldea.

> XAKEA

Lagos eta Gartzia Espainiako txapelketan

Galizian jokatu den Espainiako Txapelketan euskal selekzioko partaide izango dira Abadiño Xake Taldeagaz dabilzan Jon Lagos eta Alberto Gartzia, haur kategorian. Gaur egun, maila horretan Euskal Herrian dauden bi xakelari onenak dira. Lagosek banakako Euskadiko eta Bizkaiko txapelketak irabazi ditu aurtan, eta Gartzia bigarren geratu da txapelketa bietan.

Lagosek egin moduan Euskadiko eta Bizkaiko txapelketak irabazi dituen beste xakelari bat da Adrian Martinez; kimu mailan lortu ditu txapel biak Abadiño xake taldeko gazteak.

Uztailean, Granadan, banakako Espainiako Txapelketa jokatu dute Lagosek, Gartzia eta Martinezek, eta eurekin batera Maitane Varas eta Manex Reguillagak.

> MENDI BIZIKLETA

Mendi bizikletan maila onen jarraitzen du Murgoitio

Ziklo kros denboraldia prestatzeko, errepideko eta mendi bizikletako hainbat lasterketa lehiatzen dabil Egoitz Murgoitio abadiñarra. Joan zen asteburuan bigarren amaitu zuen Caja Rural Kopako mendi bizikleta proba, Lizarran. Patxi Cia izan zen irabazlea.

Orain urte bi Mendatoko proban parte hartu zuenetik, BTT proba ofizialetan lehiatu barik egon da Murgoitio. Aurtan, ordea, ziklo kroserako prestaketa moduan, batean baino gehiagotan aritu da. Esaterako, Bilboko BTT lasterketan Bizkaiko txapelkun geratu zen maiatzean.

Bestalde, errepidean, Hirumeteko Jonathan Lastra hirugarren sailkatu zen Tolosako lasterketan. Bost txirrindulari ihes eginda heldu, eta esprintetan erabaki zen irabazlea.

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 DENETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23.

Paperean, ordainduta: Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Higiezinak ETXEBIZITZAK SALDU

Bolibar (Bizkaia). Bolibarren etxea salgai, lur sailekin edo gabe. Tel.: 660-35 80 67

Abadiño. Pisua salgai/alokairuan Muntzaraten. Sukalde-egongela, 3 logela, bainugela eta komuna, balkoi handia, igogailua eta berogailua. Garajea eta ganbara. Tel.: 94-681 68 91.

Durango. Pisua salgai Durangoko erdigunean. Bi logela. Berriztatuta. Denak kanpora ematen du. Oso argitsua eta eguzkitsua. 120.000 euro. Tel.: 695-70 24 61.

Eibar. Pisua salgai Arragueta kalean. Eraikitako 75m2 ditu. Hiru logela, komun bat, sukaldia, egongela, despentsa eta bi balkoi ditu. Etxebizitza hirugarren solairuan dago. Eraikinak igogailua du eta orientazioa ipar-hegoaldekoa da. Arroparako esekitokia estalita dagoen patio batean dago. Kokapena eta komunikabideak oso onak dira. Telefonoa: 656 786097

Elorrio. Etxebizitza salgai Elorrioko erdigunean, estrenatzeko. 3 logela, bi komun, sukalde ekipatua, 8m2-ko trasteroa eta igogailua. Prezioa: 198.000 euro Tel.: 634-45 72 01.

Garai. Oarbeaskoa base-ria salgai. 10.000 m2-ko lursaila. Garaiko San Migel auzoa, 6. 8.500 m2-ko belardi soroa, nahiko laua. 200m2ko baratza, frutalaka. Nekazal turismoa edo nekazaritza ekologikorako aproposa. Toki lasaia, hegoaldera begira. Erreabilitazioa behar du. Bifamiliarra egiteko baimena dauka. Udaletxea, frontoia, kultur etxea, osakidetza kontsulta, jateak(2) eta autobus geltokitik 150 metro tara. Durangotik 10 minutura eta A-8 autopistatik bost minutura. Tel: 639833489 Posta: jo.amantegi@gmail.com

Gasteiz. Pisua salgai San Martin auzoan (125m2, 2. Solairua). Etxe argitsuua eta ikusmira ederrekoa, ipar-hegoaldera be-

gira. Sukaldia, 3 logela, egongela eta bi komun ditu; baita balkoia, apartakaleku eta trasteleku ere. Altzari eta guzti. Berogailua gas bidez. Igo-gailua ere badu. Ikusi nahi izanez gero, 693243712 telefonora deitu. 253.000euro.

Lurreta. Lurretan, Arriaundin, etxebizitza salgai. 50.000 euro. Tel.: 685-72 80 42.

Lurreta. Lurretan Zubiaurre kalean pisua salgai. 70 m2, 3 logela, egongela, komuna eta sukaldia. 30 m2ko terraza. Berriztatuko. Tel.: 636-40 26 67.

Mallabia. Mallabian baserri berriztatua eta 6.000 m2-ko lursaila salgai. Tel.: 639-97 26 85.

Otxandio. Otxandion apartamentua salgai dago. Altzariz jantzia eta trastelekuarekin zein igogailuarekin. Tel.: 675-71 72 83.

Otxandio. 65m-ko pisua salgai, altzariz jantzia, bizitzera sartzeko moduan. Lehenengo solairua, bi gela, egongela, sukaldia eta komuna. Denak kanpokalderantz ematen du, gainera, hirugarren solairuan 6 m2-ko trasteleku bat dauka leiho batekin, estudio txiki baterako oso aproposa. Eraikuntza 2003. urtekoa da. 120.000 euro. Tel.: 634-44 47 76.

ERRENTAN EMAN

Abadiño. Abadinon, Muntzaratz auzoan, pisu bat alokagai dago. Tel.: 652-73 63 39.

Abadiño. Pisu txiki bat alokagai dago Abadinon. Tel.: 635-74 70 06 (Tere).

Durango. Etxea alokatzen da Durangon, Alde Zaharrean. Eraikuntza berria: hiru logela, komun bi, sukaldia eta egongela ditu. Informazio gehiago jasotzeko 660-05 56 43 telefonora deitu.

Durango. 4 gela, 2 komun, egongela eta sukaldia. Berokuntza zentrala, igogailua eta argitsua. Deitu ezazu 660-05 56 43 telefonora.

Elorrio. Elorrioren, etxebizitza alokagai. Erdigunean eta estrenatzeko. Hiru logela, bi komun, sukalde ekipatua, zortzi mtero karratuko trasteroa eta igogailua. Prezioa: 650 euro hilean. Tel.: 634-45 72 01.

Gasteiz. Pisua alokagai arantzabal auzoan (8. Solairua). Etxe argitsuua eta ikusmira ederrekoa, hegoaldera begira. Sukaldia, 4 logela, egongela eta bi komun ditu; baita apartakaleku eta trasteleku ere. Altzari eta guzti; bizitzaren hasteko moduan. Igo-gailua ere badu. Ikusi nahi izanez gero, 693243712 telefonora deitu. 950 euro.

Otxandio. Otxandion, herri erdian, apartamentu bat alokagai. Bi logela, sukaldia, egongela eta komuna. Tel.: 605-77 37 21.

Zaldibar. Pisua alokatzen dugu Zaldibarren. Hiru logela ditu eta altzariz horniturik dago. Hilean 550 euro hilean. Tel.: 655-70 62 68.

Zaldibar. Zaldibarren, herri erdigunean, pisua alokagai. 3 logela, altzariz horniturik eta igogailuarekin. Tel.: 639-21 01 39.

OPORRETAKO ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Oropesa del mar (Castellon). Oropesa del mar, Marina Dor 4 - 6 pertsonentzako apartamentu berria, udan eta urte osoan zehar alokagai. Hondartzatik 150 metro tara. Egongela, 2 logela, komuna, sukaldia, terraza handia, garajea, 2 igerileku eta txintxaunak ditu. Leku lasaia da. Animaliarik ez. Tel.: 670-21 49 24 marijo

Conil (Cadiz). Conilen (Cadiz) apartamentu bat alokatzen da. Hondartzatik inguruan. Tel.: 653-73 34 57

Valle ramales (Kantabria). Valle ramales-en (Kantabria) txaleta alokatzen da. Tel.: 653-73 34 57

Conil (Cadiz). Landa-etxea alokatzen da Conilen (Cadiz). Herritik hiru minutura dago. Lorategia dauka eta ingurune lasaia kokatuta dago.

Tel.: 600-59 65 38

